

Zure kamisetaren bidaia

Fast Fashion-a aztertzeko
txostena: inpaktuak
eta alternatibak



MADRE CORAJE
De tu compromiso nace la esperanza

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



Zangoza k. 38. Milagrosa. Iruñea - 31005 Nafarroa | T. 948 233 289 | navarra@madrecoraje.org

www.madrecoraje.org

Jarraitu:

 www.facebook.com/asociacionmadrecoraje/

 @MCorajeONGD

 @madrecorajeongd

 www.youtube.com/user/madre0coraje

Diseinua eta maketazioa:

basati | maitetxumdiez@gmail.com

AURKIBIDEA

1. Justifikazioa	5
2. Moda Azkarra. Definizioa eta historia	7
3. Bidaia honetan hiru inpaktu giltzarri hartuko ditugu ardatz	9
4. Agenda 2030 zeharkakotasunez	15
5. Kamiseta baten prozesua	19
1. Diseinu- eta patroigintza-prozesua	20
2. Lehengaiak landu eta ekoiztea	20
3. Jantzigintza, deslokalizazioa eta garraioa	28
4. Kontsumoa eta salmenta denda fisikoetan eta online	32
5. Kamisetaren erabilera eta haren bizitza erabilgarriaren amaiera	35
6. Alpaka egiteko prozesua	39
7. Europako Estrategia Berria Ehun Jasangarrietarako eta Zirkularretarako	43
8. Eta egoera hori ikusirik, zer egin dezakegu?	47
9. Iturri zerrenda	57



1. Justifikazioa

Txosten honek helburu du moda azkarrak gizartean, ingurumenean eta ekonomian eragiten duen inpaktuari buruzko sentsibilizazioa eta kontzientzia piztea. Hainbat arlotan gertatzen den inpaktuak desberdinkeria sortzen du bai pertsonengan bai planetan, gehienbat komunitate zaugarriengan eta pobretuetan. Bada, egoera hori erakutsi nahi dizugu agiri honetan. Egoerak eragin kaltegarria sortzen du gaur egun eta, halaber, etorkizuneko belaunaldien garapena ere jartzen du arriskuan. Horrenbestez, bidaia bat egitea proposatzen dizugu zure KAMISETaren bidez. **Bidaia moda azkarra edo fast fashion deritzon ehungintzaren kausak eta ondorioak ulertaraziko dizkizu.** Aldaketaren eragile izatera animatzen zaitugu, bizi zaren tokiko kontsumoaren alde jokatuz, horrek botere-egiturak alda ditzakeelako eta toki guztietan eragin onuragarria izan dezakeelako.

Egoera ikusirik, **Madre Corajek oinarritik egin nahi du kontsumoa murriztearen alde**, moda azkarrak dakarren kontsumo harrapariaren aurrean aldaketa eragiteko. Izan ere, munduko biztanleria 2050ean 9.600 milioikoa bada, ia hiru planeta beharko dira egungo bizimodua mantentzeko behar diren natur baliabideak lortzeko (Slow Fashion Next, 2022). Eta, zalantzarik gabe, ezin dugu jarraitu kontsumitzen erritmo horretan, ezta era hondatzailean ere.

Era berean, atera itzazu kanpora barrena ukitzen dizuten egoera horiek, eta bihurtu itzazu ekintza. Prozesu jarraitua izanen da, baina beti eman behar da lehen pausoa eta, behin egoera horrek klik egiten digunean, aldaketa egitera animatzen zaituztegu errealitate bidegabe horien aurrean, zuen kontsumo arduratsu eta kritikoa bidez; besteak beste, Madre Corajek bere denda solidario guztietan eskaintzen duen bigarren eskuko kontsumoa moda azkarraren alternatiba ona izan daiteke. Dokumentuaren bukaeran, moda jasangarriko aukerak aurkituko dituzu, denon artean mundu bidezkoago eta jasangarriagoa eraikitze aldera.

Bidaia on!

Hasteko eta bat, interesgarriak iruditzen zaizkigun kontzeptuei buruz hasiko gara hitz egiten, behar bezalako abiapuntua baitira zure kamisetaren bidaia hobeki ulertzeko eta, era berean, moda azkarrak edo fast fashionek gizartean, ingurumenean eta ekonomian ondorioak zergatik sortzen dituen ulertzeko.

2. Moda Azkarra. Definizioa eta historia.

Moda Azkarra – Fast Fashion

Moda azkarra edo fast fashion oso zabaldua dago jantzi-bildumen berrikuntza ultra-azkarrean oinarritzen den modaren industrian. **Gaur egun, 15ean behin aldatzen dituzte bildumak dendetan.** Poliesterrak moda horren hazkunde ikaragarri azkarra ahalbidetu du. Izan ere, arropa egiten da berehala urratzeko edo hausteko; horri zaharkitze programatua esaten zaio. Azken buruan, horrek arropa botatzera bultzatzen gaitu eta berriz ere beste arropa bat ziztu bizian kontsumitzera. Moda horrek hainbat ezaugarri ditu; adibidez, erabili eta botatzeko arropa merkeen moda da, arropak ez dute kalitaterik, masa-ekoizpena egiten da legeria bigun-biguna den tokietan. Bada, moda molde horrek ondorio garrantzitsuak ditu gizartean, ingurumenean eta ekonomian. Denbora laburrean erabili eta botatzeko sistema lineala da, eta ondorio larriak ditu bai planetarako, bai pertsonentzako (Oxfam France, 2022).

Historia zertzelada batzuk

Praktika hori XX. mendearen bigarren erdian hasi zen, Toyotan «lean management» hura agertzearekin. **Ekoizpen kostuak ahalik eta gehien gutxitu nahi dira, fluxu handia fabrikatu eta hornidura epeak murriztu, ahalik eta errentagarritasun eta etekinik handiena ateratzeko.** Elikagai sektoreak antolaketa eredu horri heldu zion berehala, «fast food» kontzeptua sortzeko eta, horrela, ahalik eta elikagairik gehienak eta kalitaterik gutxienekoak eskaintzeko, guztiak ere azkar fabrikatuak eta mundu osoan salduak. Gaur egun, praktika hori modaren industriara zabaldu da, eta ehungintzako enpresa handi gehienek «fast fashion» eredu nagusiarekin bat dihardute. Ekoizpen lantegien deslokalizazioa gakoa da sistema horretan (Oxfam France, 2022).

2013ko apirilaren 24an, Dhaka hiriaren kanpoaldean (Bangladesh), Rana Plazako eraikina kolapsatu zen. Zortzi solairuko ehun-lantegi horretan, arropa egiten zen Europako moda azkarreko banatzaile handientzako. Guztira, 1.130 langile hil eta 2.500 inguru zauritu ziren. Mundu osoak izan zuen gertatutakoaren berri, eraispenak kontsumitzaileen kontzientzia piztuta eta ehungintzan ari diren langileen baldintza negargarriak agerian utzita (Oxfam, 2020). Gertakari horren ondorioz, honakoa sortu zen: Fashion Revolution, tokian tokiko ekimenak zabalatzeko.

2000tik 2015era, Ellen MacArthur Fundazioaren informazioaren arabera, arropa ekoizpena bikoiztu zen: izan ere, 50.000 milioi janzki inguru fabrikatu ziren 2000n, baina handik hamabost urtera, 100.000 milioi baino gehiago ekoiztu ziren (Ellen MacArthur Foundation, 2017, 18. or.).

Azken 20 urtean, **sare digitalen eta sozialen gorakadak eragin handia izan du gure kontsumo ohituretan.** Eta bilakaera horrek modaren industrian izan du eraginik handiena, sektoreen artean. Hainbat arrazoik eraginda, erosketa arloan sekulako iraultza gertatu da 2000tik 2020ra. Hona hemen arrazoiak: merkataritza elektronikoen gorakada, sare sozialen leherketa, eta *Digital natives* deritzen erosle konektatuen kategoria berri horren etorrera. Esparru digitala noranahi zabaldu denez, markak egokitu behar dira eta teknika jakin batzuk sustatu behar dituzte, hala nola sare sozialetan txertaturiko erosketak edota bezero birtualarentzako zerbitzua. Modako marken onlineko esperientzia eta banaketa bide bat baino gehiagoren erabilera optimizatu behar dute, bezeroarekin harreman erreala duten bitartean (Deflandre & Salut, 2020, 20. or.).

Pertsona guztiek dute eskura moda azkarra, klase sozial guztiek, eta horrek joerako jantziekin jantzeko aukera eman dio pertsona gehiagori, arropa hori kalitatez apalagoa izanik ere.

Fast fashionek hazkunderako eragin ekonomikoa sortu du gainbehera zetorren arroparen merkatuan, herrialde «aberatsetan» enplegua sortuta. Fast fashionek nabarmen bultzatu du jantzigintzaren hazkundera, kontsumitzaileen eskari elikatuari erantzuteko, kontsumitzaileek ahalik eta gehiena nahi baitute ahalik eta kosturik txikienean (Deflandre & Salut, 2020, 22. or.).

Fast fashion eta fashion week

1800. urtearen bukaeran, diseinatzaileek eta saltoki handiek moda-desfileak garatu zituzten diru ahalmen handiko kontsumitzaileei hurrengo diseinuak aurkezteko. 1943an, Bigarren Mundu Gerran, Estatu Batuetako moda-industriak modaren lehen aste ofiziala sortzea erabaki zuen, diseinatzaile estatubatuarrak bultzatzeko eta modaren prentsari bilduma guztiak aldi berean ikustea errazteko. Horra nola hasi zen moda industrialaren sistema moderno eta konplexua, egun ezagutzen dugun bezala. Espero zen diseinatzaileek gutxienez bi bilduma sortzea urtean; bilduma bakoitzak, gainera, ezustea eragin behar zuen, eta aurrez aurkeztutakoaz bestelakoa izan behar zuen. Moda erosleak ikuskizun haietara bertaraten ziren, beren dendetarako hurrengo denboraldirako zer arropa eskatu erabakitzeko.

1980ko hamarkadaren bukaeran, moda azkarreko markak ekuazioan sartu ziren. Behar bezalako teknologia asmatu zuten moda azkar eta merkeko jantziak egiteko. Horrela, zer jantzi ekoiztu erabakitzeko, moda azkarraren diseinatzaileek sakon erreparatu zioten pasareletan gertatzen ari zenari, hau da, han agertzen ziren kolore eta siluetei, bilduma berrietara ekartzeko. Modaren asteak, izan ere, beharrezkoak ziren oinarriak ezarri zituen moda azkarra sortzeko. Eta orain, lau hamarkada geroago, moda azkarra modaren industrian da nagusi eta arropa merkeko milioika jantzi ekoizten ditu jende-masentzako. Kontsumitzaileak etengabe erosketan aritze aldera, marka horiek modako arropa berriak ekoiztu behar dituzte oso azkar, eta joera haietako asko desfileetan sortzen dira (Segran, 2023).

Horrela, marka handien egoitzetan erabakitako joeraren arabera agintzen du moda mota horrek gure janzkera, gutako bakoitzaren ahalduntzetik urrun. **Fast fashionek joera berriei kosta ahala kosta jarraitzea proposatzen du, inola ere pentsatu gabe joera horiek desfasatuak geldituko direla hilabeteko epean, eta arropa horiek, ziurrenera, bota eginen direla.** Horren ondorioz, portaera uniformizatzaileak gertatzen dira. Orain, inork ez ditu bere estiloa eta sormena adierazten; bestela, jendeak «has been»tzat jotzeko arriskua izanen du (Atode, s. f.).

3. Bidaia honetan hiru inpaktu giltzarri hartuko ditugu ardatz

- ⊕ Ingurumeneko inpaktua
- ⊕ Inpaktu Soziala
- ⊕ Inpaktu Ekonomikoa

Zenbaitetan, hiru inpaktu horiek erabat daude lotuak, dokumentu osoan ikusiko dugun bezala. Zer kausa eta ondorio dituzten jakinen dugu, eta zer egin dezakegun gutako bakoitzak eta denon artean egoera bidegabe hori eraldatzeko. Egoera horren ondorioz, askok oso aberastasun gutxi dute eta, gutxi batzuek, berriz, aberastasun handia. Industria horrek sustatzen duen kontsumismoak ingurumena suntsitu eta jende askoren Giza Eskubi-deak urratzen ditu, batez ere emakumeen artean. Izan ere, Ropa Limpia (Arropa Garbia) kanpainaren txostenaren arabera, **fast fashion moldeko arropa ekoizten duten pertsonen % 80 emakumeak dira, eta Espainian, % 50.** Azterlana Aberdeengo Unibertsitateko ikertzaileek eta Traidcraft Exchange UK justizia komertzialerako ongintzako erakundeak 2022an argitaratua da eta agerian jarri du pandemiak giza eskubideen urraketak ikusarazi eta jarri dituela mahai gainean pertsona horien baldintzei dagokienez, hala nola 12 ordu baino gehiago lan egitea egunean, ezin baja hartu kanporatuko ote zaituzten beldurrez, eta segurtasunik ez izatea, ez ekonomikoa, ez elikagaietan, ez osasunean, ez etxebizitzan. Pandemiak desberdinkeriazko egoera horiek larriagotu eta fokua emakumearengan jarri du.

2030eko Agendak, adibidez, Garapen Jasangarriko Helburu batzuk proposatu ditu (aurrerantzean, GJH) planeta-ren eta pertsonen gainean eta, zalantzarik gabe, ehungintzak tamaina garrantzitsua du, bai eta inpaktu handia ere, eta aldaketa horren partea izan beharko luke; beraz, arropen diseinutik haien bizitzaren amaierarainoko bidea landu behar da, jasangarritasunean oinarriturik. Azterlan honetan, funtsezkoa iruditzen zaigu trazabilitatearen eta gardentasunaren ikuspegitik lan egitea, Slow Fashion Nest-ek esaten duen bezala, bi-biak eskutik helduta baitoaz, arropa batek bere diseinutik bizitzaren amaieraraino duen inpaktua aztertzeke eta ulertzeke.

2030eko Agendarekin bat eginen diogu begirada inpaktu bakoitzari, ehungintzarekin duen lotura ikusteko eta, era berean, huraxe eraldatzeko eta Agendaren helmugekin bat heldu den garapen jasangarrirako proposamena sortzeko. Ondoren, Slow Fashion Next-ek egindako taula ageri da, GJH bakoitza ehungintzarekin lotzeko.

Lehenik eta behin, ingurumen kontzeptua eta ingurumeneko inpaktu kontzeptua definituko ditugu. Horretatik abiatuz, era azkarrean diseinatu eta kontsumitu den ehungintzaren kausa eta ondorioetan barneratuko gara.



Iturria: Slow Fashion Next.

Ingurumena. Kontzeptua

«Euskaraz *ingurumen* eta *ingurugiro* hitzak erabiltzen dira kontzeptu hori izendatzeko. Pertsona, animalia edo gauza bat zer elementutan bizi den, horixe da *ingurunea*. Horrekin ere dute zerikusia organismoen eta komunitate ekologikoen gainean eragiten duten faktore biotiko eta abiotiko guztiek, haien forma eta garapena eragiteraino. Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera, ingurumena da izaki bizidunen garapen eta jardueran eragina duten egoera eta faktoreen multzoa.

Ongi Bizitzearen filosofiaren arabera, planeta gure etxetzat jo beharko genuke. Izan ere, Ongi Bizitzea Hegoamerikako herri indigenen aldarrikapena eta proposamena da, naturarekin eta elkarren artean harmonian bizitzea proposatzen duena, bai eta komunitatean ere. Aldarrikapena da, eredu kapitalistaz bestelako bizimoduaz ari delako. Eredu kapitalistaren berezko helburua hazkunde ekonomikoa baita, eta horrek Ama Lurraren suntsipena dakar eta, halaber, gizakiak bizitzaren funtsarekiko lotura erantzten du, eta bizitzak berez dituen erritmoetatik urrundutako ekoizle edo kontsumitzaile bihurtzen da (Madre Coraje, 2017)

Ingurumen-inpaktua. Kontzeptua.

«Gizakiaren ekintza edo jarduera batek ingurumenaren kalitatean eragiten duen aldaketa da. Lehenengo kontsiderazioa ingurumen-aldaketa horren jatorria edo arrazoia da. Ingurumen-efektu bati edo ingurumen-inpaktu bati buruz hitz egin ahal izateko, giza jarduera batek eragin behar du zuzenean edo zeharka. Bigarren urrats batean, ingurumen-efektu hori inpaktutzat jo ahal izateko, beharrezkoa da ingurumen-kalitatearen aldaketa horren balorazio positiboa edo negatiboa egitea» (Garmendia Salvador et al., 2005, pp.17-18).

Ikuspegi ekologikotik, inpaktuak bilakaera-dinamika naturalen desbideratze gisa deskribatzen dira, eta ekosistemaren egoera teorikoan aldaketak eragiten dituzte. Ingurumenean izanen duen eragina honela definitu daiteke: giza jarduera batek ingurumenaren osagai batean izanen duen eragina, epe jakin batean eta espazio jakin batean, proiektua ez gauzatzekotan osagai horrek izanen lukeen egoeraren aldean. Proiektua gauzatzeko, beraz, aldaketa dakar berekin, hau da, sistemaren halako perturbazio bat hasierako egoeraren aldean (Wathern, 1990, 7. or.).

Behin planetarekin eta haren inpaktuekin lotutako kontzeptuak definitu ondoren, gizartean ditugun inpaktuei erreparatuko diegu.

Inpaktu soziala. Kontzeptua.

Gizarteari eta pertsona guztiei oro har eragiten dieten ekintzak edo jarduerak dira. Dokumentu honek aztergai duen gaiak, hau da, ehungintzaren inpaktuek, zuzeneko eragina du pertsonengan, jantzi bat sortzeko prozesu osoari dagokionez: diseinua, lehengaiak landu eta ekoiztea, kontsumoa, erabilera, eta haren bizitzaren amaiera. Ehungintzak etekinak sortzen ditu eta estatuetako ekonomiak hazarazten ditu; moda azkarrak, ordea, ingurumena kaltetuz egiten du hori eta pertsonen giza eskubideak urratuz. REMAKE irabazi-asmorik gabeko erakundearen arabera, 75 milioi pertsona ari dira munduan egiten guk jantzen ditugun arropak, eta erabiltzen dugun arroparen % 80 18tik 24 urtera bitarteko emakumeek egiten dute. Industria hori enplegatutik gehien dituenetako bat da. Moda eskulanaren mendean gehien dagoen industrietako bat da, arropa bakoitza eskuz egin behar delako hornidura-kate luzean zehar. Munduko 6 langiletatik 1 modaren industrian ari da (McCosker, 2021).

«Inpaktu soziala» 70eko hamarkadan erabili zen lehen aldiz, Yaleko Unibertsitateak inbertitzaileen erantzukizun etikoaren gainean argitaratutako lan akademikoaren baitan. Termino hori 90eko hamarkadan demokratizatu zen, eta hainbat kulturaren eta lanbide-praktikaren gurutzetik dator: ekintza publikoaren ebaluazioaren gorakada, nazioarteko garapen programen aplikazioa, enpresen erantzukizun sozialerako estrategien garapena, etab.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Kontseilu Nagusiaren arabera, hona hemen inpaktu sozialaren definizioa: «Inpaktu soziala da erakunde baten jarduerak dituzten ondorio guztiak (bilakaerak, inflexioak, aldaketak, hausturak), bai bere lurraldeko kanpo-alderdi interesatuengana (onuradunak, erabiltzaileak, bezeroak) -zuzenekoengana eta zeharkakoengana-, bai lurralde barrukoengana (soldatapekoak, boluntarioak), bai eta gizartean oro har ere» (Avisé, 2020).

Inpaktu ekonomikoa. Kontzeptua.

Lord Lionel C. Robbinsen arabera (Goikoetxea Ferrándezek et al.-ek aipatua, 2017», 8. or.), «ekonomia giza jokabi-dea aztertzen duen zientzia da, askotariko aplikazioa duten helburuen eta bitarteko mugatuen arteko harreman gisa». Beharrak asetzeko baliabide mugatuen banaketan dago gakoa. Alde batetik, zer premia mota aseko ditugun (lehen mailakoak, bigarren mailakoak, eta sortutakoak), eta, bestetik, baliabideen zer banaketa egiten den. Fast fashionek eredu lineal bat ekartzen digu, eta eredu horrek ahalik eta etekinik handienak lortu nahi ditu gizakien eta planetaren edozein kosturen kargura; banaketa horrek desberdinkeria sortzen du eta pertsona asko pobrezian betikotzen ditu.

«Eragin ekonomikoaren ideiak adierazten du neurri, ekintza edo iragarki batek ekonomian sortzen duen eragina. Zerbaiten eragin ekonomikoa duenean, ondorioak eragiten ditu pertsona, komunitate, eskualde, herrialde edo munduaren egoera ekonomikoan.» (Pérez Porto & Gardey, 2018). Zehazki, ondorioak honakoak izan daitezke:

- Enplegua sortzea.
- Eskualdearen hazkundea.
- Prezioak.
- Lehiakideen arteko elkarreragina.
- Eta eragina suspertze ekonomikoan (Ortega, 2022).

Ehungintza-ekoizpenak dituen arrisku sozial handiak, ehungintzaren balio-kateak mundu osoan duen ekonomia arras lerratuaren ondorio dira. Etaparen arabera balio erantsi ekonomiko handi hori ehungintzaren balio-katearen kontsumoaren bukaera aldean bakarrik gertatzen da, balio-katearen lehen etapetan gertatzen diren kostu apaleko eta kualifikazio apaleko jarduerekin. Hainbat arrazoik eraginda, trinkotasun handiko eta eskulan merkeko zuntz eta oihalen ekoizpena herrialde pobretuetarantz doa, bertako legeek horrelako praktikak zilegi egiten dituztelako. Hona hemen zer arrazoi diren: batetik, kontsumitzaileek prezio apalak espero dituzte, eta bestetik, marken eta txikizkarien artean kuota dela-eta dagoen lehia.

Ehunaren balio-katean diren hiru praktikak eragiten dituzte arrisku sozial handiak. Hona hemen:

- ⊕ Elaborazio-denbora gero eta laburragoa izateko eskaria.
- ⊕ Malgutasun eskaria.
- ⊕ Prezio apalagoen eta merkataritza-baldintza hobeen bilaketa etengabea (UN environment programme, 2020, 33. or.).

Sare sozialak eta fast fashion:

Gaur egun, interneteko komunitateak eta sare sozialak jende gehienaren bizitzan txertaturik daude; horrenbestez, sare sozialak komunikazio-tresna alternatiboak dira, harremanak eta jarduerak era dinamikoan eta entretenigarrian lagunduta, erabiltzaileen esperientziaren aberasgarri. Sare sozialen erabilera, gainera, plataforma egokia da markak elikatzeko eta kontsumitzaileen erosketa-erabakiei eragiten die. **Jakin da modaren kontsumitzaileek nondik jasotzen dituzten modari buruzko ideiak: hedabideetatik eta filmetatik, truke sozialetik eta lagunengandik, kaleko estiloetatik eta beste leku askotatik.** Maiz, online mintzatzen dira ideia horiez eta, ohartu baino lehen, ideiak joera bihurtu daitezke. Horregatik jotzen dira sare sozialak gaur egun moda azkarraren industrian bezeroekiko harremanak hobetzeko aukeratzat eta, azken buruan, jende gehiagorengana iristeko bide gisa. Egungo konparazio sozialaren garrantziak gero eta balio handiagoa du, elkarreaginak Facebooken, Instagramen eta sare sozialetako beste kanal batzuetan neurtzeko.

Kontsumitzaileek elkarren arteko elkarreraginaz eta komunikazioaz gozatzen dutenez, eta produktu eta zerbitzuei buruzko aholkularitza jasotzea gustatzen zaienez, positiboa edo negatiboa izan, komunitate birtualek kontsumitzaileen erosketa erabakietan dute eragina (Elram & Steiner, 2015, 174. or.).

Influentzer sozialek moda azkarraren gorakada bultzatu dute. Izan ere, influentzerrek egun sekulako eragina dute jendearen jantzietan, hamaika jantzirekin jantzita agertzen baitira argazkietan sare sozialetan eta, maiz, ez dute arropa bera bi aldiz erabiltzen. Haien bidez, errazagoa zaie kontsumitzaileei berehalako erosketa bat egitea, «swipe up» edo kideen estekak erabiliz eta, gainera, maiz, influentzerrek komisia jasotzen dute inork erosketa egin bezain laster. Fashion Retail Academy-k egindako ikerlanak erakusten du argazkiak Instagramen partekatzeko gunea inspirazio-iturri nagusietako bat dela gaur egun modarako. Influentzerrek, aldi berean, beste batzuk inspiratzen dituzte dendetara joateko eta antzeko lookak sortzeko. Dena den, jende guztiak ezin du goi gamako etiketarik erosi; beraz, hain garestia ez den arropa saltzen duten txikizkariengan dituzten begiak pausatuak (Skeldon, 2019).

2020an, arropa salmenten ia % 30 online egiten ziren. Espero da ehuneko horrek gora segitzea, 2025ean % 43 izan arte.

Jantzigintzaren merkatuak zailtasunak izan zituen 2020an, koronabirusak eragindako pandemian, eta diru-sarrerak % 11,8 jaitsi zitzaizkion. Dena dela, arropa eta oinetakoen eskaria oso azkar suspertu zen mundu osoan eta **jantzien mundu mailako merkatuaren negozio-bolumena 1,5 trilioi dolar estatubatuarrekoa izan zen 2021ean eta espero da 2026an 2 trilioi ingurura iristea. Fast fashionen merkatuari dagokionez, 31.000 milioi dolarrekoa izan zen 2021ean, kalkuluen arabera.**

Arropa eskaririk handiena egiten duten herrialdeak AEB eta Txina dira, eta beste edozein herrialdek baino diru-sarrera handiagoak sortzen dituzte. Beraz, ez da harritzekoa bi herrialde horiek eginkizun garrantzitsua betetzea ehunen nazioarteko merkataritzan. Txina sailkapen burua da, arropa esportazioen balioa altuagoagatik. Estatu Batuak bigarren tokian daude jantzien inportazioen balioan, Europar Batasunaren atzetik (Gautier, 2023).

Moda Azkarraren arrazoiak

Dokumentu honek moda azkarraren inpaktuak eta ondorioak hartu ditu ardatz, baina bidaia osoa izanen bada, industria mota horren kausak jakin behar ditugu.

Historia pixka bat egiten badugu, ulertuko dugu nola iritsi garen egungo moda azkarra gobernatzen duen sistemara. Izan ere, 70eko hamarkadaren bukaeratik, industria-adar osoak deslokalizatu dira (ehungintza, teknologia, informatika, motorra, zerbitzuak) hainbat boladatan (hamarkada hartan, 80ko eta 90eko hamarkadetan eta 2000koan), lan eta ingurumen arloko legeak bigunagoak dituzten edo horrelako legerik ez duten herrialdeetara, kostu apalean eta abantaila fiskalekin fabrikatzeko, Merkataritza Libreko Itunak eta Esportaziorako Eremu Libreak hauspotuak (Merkataritza Libreko Eremu edo Esportazioak Prozesatzeko Eremu ere baderitze), ekoizpena metatze aldera. Horrek modaren industriaren zikloen eta metabolismoen azlerazio izugarria eragin du, gizartean eta ingurumenean izandako inpaktuak areagotuta. Hori "enpresa hutseko" eredua da, egun munduan hedatua, arropen diseinuaz, marka estrategiez (branding), marketinaz eta arlo komertzialaz arduratzen dena, egoitzak enpresa filialetan agindutakoak, ekoizpena berralokatuaz aurrekontu eta epe txiki-txikiekin. Besteak beste, korporazio amerikar batzuk izan ziren aitzindariak irabazi-tarte handiagoak horrela lortzen. Baina Merkataritzaren Mundu Erakundeak eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak ohartarazi dute, 1973tik, gora egin duela mendebaldean bai laneko segurtasunik ezak, bai iraupen luzeko langabeziak, eta soldatak behera joan direla deslokalizazio horien garaian gertaturiko hiru bolada haietan: hots, 80ko hamarkadaren hasieran, merkatuak irekitzeagatik; 90eko urteetan, Mutilzuntzen Akordioarekin (Txinara eta Indiara, batez ere). Eta 2000tik aurrera, Asiako hego-ekialderantz, politika neoliberalak erakarrirako krisien ondorioz (Mail Brenda Chavez, 2023).

Moda azkarraren kausa nagusia ahalik eta irabazirik handiena lortzea da. Horretarako, bi faktore hartu ditugu kontuan: diru-sarrerak ken kostuak. Arroparen prezioak apalak diren industria horretan, kostuek jakina oso apalak izan behar dute, irabazi handiagoak lortuko badira eta, horregatik, arropak egiten dira kostu apaleko legeek pertsonengan eta planetan inpaktu kaltegarria ahalbidetzen duten lekuetan, planetan eragin suntsitzailak sortuta eta balio-katean parte hartzen duten pertsonen giza eskubideak urratuta. Horri deslokalizazio deritza eta oso ohikoa da industria horretan. Erabakiak hartzean, aukera-kostua giltzarri da. Horregatik, bulegoetan moda lineala, merkea, azkarra eta kalitate gutxikoa lehenesten da, hein handian poliesterrari esker, 2000tik hona industriaren hazkunde esponontziala eragin baitu. Zerga beherapenek eraginik ere, industria hori nahi bezala hazi da, eta ez die inolako ondorioz eta erantzukizunik ekarri jendearengan eta planetan eragin kaltegarria sortzen duten enpresei.

Irabaziak ahalik eta gehien handitu nahi izateak horrelako ondorioak eragiteaz gain, esan behar da etekinak esku gutxi batzuetan daudela banatuta. Industria horrek, beraz, ekitaterik gabeko aberastasuna sortzen du eta pertsona asko pobretzen ditu prozesu osoan.

4. Agenda 2030 zeharkakotasunez

Gure kamisetaren bitartez bidaiatu baino lehen eta hainbat datu eta errealitate erakutsi aurretik, 2030eko Agendaz eta GJHez hitz egin nahi dugu. Izan ere, zeharkakotasunez lotura dute arestian azaldu ditugun inpaktuekin. **2030eko Agenda bide-orri ekonomikoa eta politikoa da, eta arrasto batzuk ematen ditu industria hori eraldatzeko, planetan eta gizartean ongizatea sortze aldera.** Ikuspegi horretatik, GJHak eta haien helmugak erakutsiko ditugu, 2030eko agendan zehaztuta dauden bezala. Helburuen artean, ehungintzarekin bat datozenak aukeratu ditugu, 2030erako egin behar diren aldaketak erakusteko.

Resiliencia Estocolmo Institutuaren arabera, biosferari dagozkion GJHak piramidearen oinarrian elkartu ditzakegu: 6-13-14-15 GJHak. Goialdean, gizarte arloan, honako GJHak ditugu: 1-2-3-4-5-7-11-14, eta piramidearen hirugarren mailan, ekonomia arloan, honakoak: 8-9-10-12. Eta goi-goian, 17. GJH, aliantzak, ezinbestekoa baita denak funtziona dezan.

2023eko Agendan ez zaio zuzeneko aipamenik egiten ehungintzari, baina GJH asko haren inpaktuekin lotu ditzakegu, dela zeharkakotasunez, dela berariaz. Helmuguen informazio-iturria Nazio Batuen GJHei buruzko webgune ofiziala da (2015). Agenda interesgarria da, eta garapen jasangarria lortzeko helburuak eta helmugak zehaztu ditu, baina epea bukatzeko 7 urtera gauden honetan, huraxe hartu beharra dago ardatz, eta era berean, neurriak hartu eta legeak onartu behar dira, Agendan proposatzen diren aldaketak lortzeko. Errealitatea aldatzea korapilatsua da, eta administrazioak eta ekimen jasangarriak diruz hornitu behar dira, jasangarritasuna errealitate izan dadin produktuaren zikloaren atal guztietan. Eta jakitun izan aldaketek denbora behar dutela, bai eta kontzientzia eta ezarpena ere.

Helburu bakoitzeko helmugan adierazle batzuk adieraziko ditugu, guztiak ere ehungintzarekin lotutakoak. Lan hau Slow Fashion Next-ek egin du (2023).

1. Helburua: Pobrezia mota guztiak mundu osoan desagerraraztea. Aberastasuna zuzentasunez banatuko duen ehungintzaren alde egiten dugu, prozesuan parte hartuko duen jendeak duintasunez bizi dadin eta inork haien eskubideak urratu ez ditzan. Gaur egun, industria horrek irabazi handiak sortzen ditu haren balio-katearen parte txiki batendako, eta beste parterako (gehienendako), aldiz, pobrezia eta aurrera egin ezina sortzen ditu, sektore anitzeko pobrezia eraginda, besteak beste, soldata duinik kobratzen ez dutelako, eta ezin dituztelako oinarrizko beharrak ase, hala nola elikadura, hezkuntza, osasuna, etxebizitza, saneamendua eta elkartegintza; ondorioz, arropa ekoi-zten diharduen jendea ezin da askatasunez eta era ahaldunduan garatu. **1. B helmugak** arau-esparru sendoak sortzea du xede estatuan, eskualdean eta nazioartean, oinarri harturik pobreen aldeko garapen estrategiak, betiere generoa kontuan harturik, pobrezia desagerrarazteko neurrietan inbertsioa ziztuan egite aldera. Helmuga horrek oso ondorio onuragarriak izanen lituzke moda azkarreko langileen bizitza soldata duinaren bidez hobetzeko. Ilunkeriak eraginik eta lege bigunen ondorioz, ehungintzan giza eskubideak urratzen dira eta pobrezia betiketzen da.

2. Helburua: Gosea amaitzea. Ehungintzak aberastasuna sortzen duen sistema ekonomiko bat izan beharko luke prozesuaren balio-kate guztian ari diren pertsonendako, haien beharrak asetze aldera; besteak beste, elikadura, oinarriko premia baita bizitzeko. 2030erako **2.4 helmugaren** xedea da elikagaiak ekoizteko sistemen jasangarritasuna ziurtatzea eta nekazaritza-lan erresilienteak aplikatzea, produktibitatea eta ekoizpena handitzeko, ekosistemak mantentzen laguntzeko, klima-aldaketara, muturreko meteorologia-gertakarietara, lehorte eta uholdeetara eta beste hondamendi batzuetara egokitzeko gaitasuna sendotze aldera, eta lurzorua eta lurzuraren kalitatea pixkanaka hobetzeko. Sektoreen artean, hirugarrena da ur kontsumoan eta lurzorua erabileran. Hemen sektore hori hartu beharko da kontuan, lurren eta haien erabileraren kudeaketa antolatzeko. Ehungintzak munduko hondakin-uren % 20 inguru sortzen du. Bigarrena da ur gehien behar duten industriaren artean.

4. Helburua: Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea. Helburu hau irtenbideetako bat da ehungintza eraldatzeko eta ongizatea eta justizia sortzeko, haren inpaktuak inpaktu onuragarriak izan daitezten jendearentzat eta planetarentzat. Hemendik **2030erako 4.7 helmugaren** xedea da ziurtatzea ikasle guztiak garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratuko dituztela; besteak beste, honela: garapen jasangarriko eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren bidez, giza eskubideen eta genero berdintasunaren bidez, bake-kulturaren eta indarkeriarik ezaren sustapenaren bidez, munduko herritartasunaren bidez, eta kultur aniztasunaren balorazioaren nahiz kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpenaren bidez. Madre Corajen Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen bidez lan egiten dugu, mundu bidezkoagoa eta jasangarria lortzeko, hala hezkuntza formalean nola ez-formalean.

5. Helburua: Genero berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea. Ehungintzan, ekoizpena emakumeen esku dago, eta, horregatik, genero ikuspegiak zeharkakoa izan behar du. Zalantzarik gabe, moda azkarrak emakumearen eskuak ditu, eta haren eskubideak urratu egiten dira. Emakumeen % 60 inguruk ekonomia informalean lan egiten du eta, ondorioz, pobrezian erortzeko arrisku handiagoa dute (Nazio Batuak, 2015). Ehungintzaren ezaugarri berezi bat da hartan emakume askok lan egiten dutela. Emakumeek lan-indarraren gehiengoa osatzen dutelako ezaugarri hori errealitate bat da herrialde askotan, baina ez da unibertsala. Emakumeak dira Bangladesh, Mexiko eta Kanbodiako jantzigintzako lantegietan lan egiten duten 3 milioi pertsonen % 80. Indian, ordea, jantzigintzako langile gehienak gizonak dira (UN environment programme, 2020, 34. or.). **5.5 helmugak** emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea du xede, eta lidergo-aukeran berdintasuna bermatzea bizitza politiko, ekonomiko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan.

Ekonomia eta emakumeak

Ehungintzaren fabrikazioa garapen bidean dauden ekonomietara eramatea eragin duten praktika ekonomikoek (hala nola, prezio apalagoak, malgutasuna eta elaborazio-denbora gero eta laburragoa) ere eragin dute emakumeak nagusi izatea ehungintzako lan-indarrean. Horren arrazoia da emakumeei gizonei baino gutxiago ordaintzen zaiela unibertsalki; eta emakumeei gizonei baino soldata apalagoak ordaintzeko gaitasuna inbertsioak eta irabaziak handitzeko modutzat hartzen da, eta, aldi berean, esportaziorako ondasunen kostua apala

mantentzen da; beraz, horra hor soldata-arrakala argia. Aldi berean, genero-arrakala bereziki iraunkorra da lidergo-rolak direnean. Emakumeen kontratazioaren lan-kostu onuragarriak ustiatzen dituzten gobernu- eta enpresa-politikek genero-estereotipoak finkatzen dituzte, eta emakumeak kualifikaziorik gabeko lanpostuetan metatzea betikotzen dute, ordezkapen-tasa handia dutela.

Gainera, emakumeen lana ehungintzako ekoizpen-sistemen «beheko mailan» egoteak esan nahi du laneko lesioak izateko eta produktu kimiko arriskutsuen eraginpean egoteko arriskurik handienak dituztela. Horrez gain, emakumeak bereziki daude ehunen prozesamendu hezean erabiltzen diren produktu kimikoek osasunari eragiten dioten arriskuen pean, produktu kimiko horien izaeratik; adibidez, bularreko minbizia garatzea eragiten duten produktu kimikoak eta ugalketa-arazoak eragiten dituzten produktu kimiko disruptore endokrinoak (UN environment programme, 2020, 34. or.).

7. Helburua: Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.

Energia garbi eta berriztagarria bultzatzen jarraitu beharra dago sektore honetan, ez kontrolik gabe ekoizten jarraitzeko, baizik eta prozesuak hobetzeko eta pertsonengan eta planetan ongizatea sortzeko. Ekoizpen batzuk eskaeraren arabekoak dira eta teknologia berritzaileak erabiltzen dira, hau da, pertsonak bere jantziaren nolakoa aukeratu dezake; hala nola ehuna, koloreak, itxura, sloganak. Horretarako, teknologiarik egungoenaren eskutik joan behar dugu. **7.A helmuga.** Hemendik 2030era, nazioarteko lankidetzaren areagotu nahi du, energia garbiari buruzko ikerketa eta teknologia errazago eskuratzeko, barne direla iturri berriztagarriak, energia-eraginkortasuna eta erregai fosilen teknologia aurreratuak eta gutxiago kutsatzen dutenak. Halaber, energia-azpiegiturretan eta teknologia garbietan inbertsioa sustatzeko.

10. Helburua: Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea.

Industria horrek desberdintasunak sortzen ditu; beraz, horregatik egiten dugu, giza eskubideak errespetaturik, ongizatea eta baliabide eta aberastasun guztien banaketa zuzena sortuko duen industriaren alde. Kate horretan inor atzean utzi gabe, hau da, jantziaren diseinuan hasi eta bere bizitzaren amaierara arte dirauen kate honetan. Desberdintasun hori agerian geratzen da, ekoizpena legeria bigunagoen arabera deslokalizatuta, eta horrek eragin kaltegarria du pertsonengan: soldata apalak, sindikatuak osatzeko debekua, lanaldi luzeegiak, prekarietatea, lanpostuaren arriskugarritasuna... Eta eragina ere planetan, gai kimikoen erabilerarekin, lantzen denetik ekoiztu arte, eta kutsadura banaketan eta garraioan salmenta guneetara iristeko, eta bizitzaren amaiera zabartegietan. Lege horiek ez lirateke onartuko beste herrialde batzuetan. Industria honetan irabaziak polarizatzen dira pertsona gutxi batzuen eskuetan. **10.1 xedeak**, hemendik 2030era bitartean, pixkanaka lortu eta mantendu nahi du biztanleriaren % 40 pobreenaren diru-sarreraren hazkundera, huraxe estatuko batez bestekoa baino tasa handiagoan igotzeko. **10.3 xedeak** aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen arteko desberdintasuna murriztea du helburu, baita lege, politika eta praktika diskriminatzaileak ezabatuz, bai eta horri buruzko legedi, politika eta neurri egokiak sustatuz ere. 10.a xedeak tratu berezi eta bereizgarriaren printzipioa aplikatu nahi du garapen bidean dauden herrialdeentzat, bereziki gutxien aurreratuta dauden herrialdeentzat, Merkataritzaren Mundu Erakundearen akordioekin bat.

17. Helburua: Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza biziberritzea. Balio-katean esku hartzen duten eragile guztien arteko lankidetzak eta aliantzak funtsezkoak dira industria bidezkoa eta jasagarria lortzeko. **17.10 xedeak** alde anitzeko merkataritza-sistema unibertsal bat sustatzen du, arauetan oinarritua, irekia, diskriminaziorik gabea eta ekitatiboa, Merkataritzaren Mundu Erakundearen esparruan, baita Garapenerako Dohako Programaren esparruan negoziazioak eginez ere.

5. Kamiseta baten prozesua

Proposatzen dizugu etxean duzun kamiseta batean pentsatzeko eta, horretan oinarriturik, kamiseta horren prozesu osoan zehar bidaia-tzen joan gara, haren hasieratik bizitzaren amaieraraino. Trazabilitatea eta gardentasuna oinarritzkoak dira eraldakuntza lortu ahal izateko. Trazabilitateak jantzi bakoitzaren balio-kateko datu guztiak aztertzeraz, biltzera eta sistematizazera garamatza; eta gardentasuna informazio horren guztiaren komunikazioa da. Biak elkar osatzen eta sendotzen dira.

2. Irudia

Zure kamisetaren bidaia - lineala



Has gaitezen! Horretarako, hasieratik hasi beharko dugu, eta horrek zure kamisetaren diseinura eramanen gaitu.

1 Diseinu- eta patroigintza-prozesua

Diseinua sorkuntza-prozesuaren zati bat da, eta bertan zehaztuko da zer moda mota sortuko den. Horregatik, kamisetaren bidaia sormenetik eta patroietatik hasi behar dugu. Une horretan aukeratuko dira zure kamisetarako materialak, eta bertan planteatuko dira ekoiztuko den jantzi mota definituko duten gai guztiak. Aukeratu beharko da erabiltzen diren material organikoak edo ez-organikoak, beganoak, zenbat ur erabiliko den hautatutako lehengaiak hazteko, eta zer kalitatekin ekoizten arituko garen gure jantzia, iraupen luzekoa ote den edo egonaldi laburrekoa armairuan. Erabakiko dugu tailer txiki batean ekoizten den edota lantegi deslokalizatu batean, zer tindu eramanen dituen, jantzia higitzeko teknikak erabiliko diren edo ez, eta askoz ere kontu gehiago, hala nola zer-nolako publizitatea erabiliko dugun herritarrengana iristeko, eta jantziak zer jomuga izanen duen haren bizitza amaitzean. Hau da, berriz ere zirkulazioan jarri eta zuzenean zabortegira joanen da?

Erabaki horretan moda azkar baten aldeko apustua egingen da, haren eragin kaltegarri guztiekin, edo kalitatezko moda zirkular eta jasangarriaren aldekoa, ingurumena eta pertsonak errespetatuko dituen. Prozesuaren une honetan, hasieran, inpaktu kaltegarrien % 80 murriztu ditzakegu, baina hori ez da jantzia % 100n jasangarria izanen delako bermea. Lehengai horren eraldakuntza-prozesua eta bizitza-amaiera ikusi beharko ditugu, baina, zalantzarik gabe, hasiera bikaina da moda bidezkoaren eta jasangarriaren alde egiteko.

2030 Agendak honako helburu eta jomuga hauek aurkeztu dizkigu, benetako aldaketa lortu ahal izateko. 11. GJH aukeratu dugu zure kamisetaren ehungintza-prozesuaren atal honetan.

11. Helburua: Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea. Diseinuari dagokionez, begiratu behar da ez dadin izan beste kultura bartzuetako diseinuen plagioa, kultura horiek sabotatzen baitira hiriak denboraldi iragankor batez jantzeko, komunitate horietatik, beren idiosinkrasiatik eta kultur ondaretik milaka kilometrora.

11.4 Are halegin handiagoa egitea munduko kultur eta natur ondarea babesteko.

Jarrai iezaguzue! Orain, lehengaiak landu eta ekoizteko ordua da.

2 Lehengaiak landu eta ekoiztea.

Lehengaien lanketa eta inpaktuak

Behion diseinua dugula eta zure kamiseta zer materialez egingen den erabaki ondoren, lehengaien ekoizpen mota bat aukeratu izanen da eta, lehenik eta behin, lehengaiak landu beharko ditugu. Zure kamisetaren etiketan ikusiko duzu zure kamiseta kotoizkoa ote den, eta zer kotoi motarekin egin den, edo poliesterrekoa ote den

edota beste edozein materialarekin egin den; askotan, hainbat material nahastuz egiten dira, eta horren ondorioz, jantzia nekez birziklatu daiteke ondotik.

Gogoeta egitea proposatzen dizugu ba ote dakizun zenbat litro ur erabili diren zure kamiseta ekoizteko edo nondik ote datorren gainean daramazun poliesterra; izan ere, gogoan izan zure kamisetak landu diren materialak eraman ditzakeela edo gizakiak sortutakoak edo petroliotik etorritakoak. Eta ezin ditugu ahaztu labore horietan erabiltzen diren eta pertsonengan eta planetan eragin kaltegarria duten gai kimikoak.

Jantzien materialak beren jatorriaren arabera elkartu ditzakegu.

- ☉ Jantziak jatorri naturaleko materialekin eginak egon daitezke, **landare edo animalia jatorriko** materialarekin osatuak: lihozkoak edo artilezkoak, adibidez.
- ☉ Gai artifizialekin egindako jantziak izan daitezke, hau da, gai **artifizialekin edo biosintetikoekin**. Horrek esan nahi du laborategian sortu direla eta teknologia bidez garatu direla. Biskosa edo Tencel, besteak beste.
- ☉ Eta hirugarren sailkapenik er badago, hots, petroliotik datozen material **sintetikoak**; ez da lehengai berriztagarria eta eraldakuntza kimikoa egin zaie; adibidez, poliesterra. Azken ehun mota horrek du inpakturik kaltegarriena pertsonengan eta planetan, huraxe ekoizten denetik botatzen den arte.

Lihoa eta kalamua historiarik handiena duten ehunak dira. Material bakoitzak ezaugarri bereziak ditu bere ekoizpenean, eraldakuntzan, kontsumoan eta desegitean, baina moda azkarrak poliester gehiegi erabiltzen du, eta horrek ekoizpen masiboa ahalbidetu dio, inpaktu kaltegarriak eraginda gizartean eta ingurumenean (Slow Fashion Next, 2022).

Material bakoitzaren inpaktu giltzarriak

(Informazio hemendik hartua: <https://cosh.eco/nl/blog>)

- ☉ **Kotoia:** ur gehien kontsumitzen duen laboreetako bat da. Nekazariak maiz pestizida eta defoliante kaltegarriak erabiltzen dituzte. Kotoiaren ekoizpena munduko intsektizida kontsumoaren % 16 da eta munduko plagizida kontsumoaren % 6; eta berotegi-efektuko gas asko isurtzen dituzte. Stockholmeko Hitzarmenak pestizida arriskutsu sorta bat mundu osoan debekatu duen arren (adibidez, mirex, endosulfán yetadichlorodifeniltricloroetanoa (DDT)), haietako asko oraindik ere herrialde batzuetan erabiltzen dira. Ellen McArthur Fundazioaren arabera, kotoi-ekoizpena berez da enplegu guztiaren ia % 7 diru-sarrera gutxiko herrialde batzuetan. Beraz, industria garrantzitsua da. Zoritxarrez, ekoizpena maiz baldintza latz eta penagarritan egiten da COSH, s. f.-a).
- ☉ **Artilea:** Ardi artilea erabiliena da eta biodegradagarria da. Ehun-material guztietatik, artileak bultzatzen du gehien berotze globala (Iturria: Higg indizea). Australian oso jarduera eztabaidagarria egiten da, mulesing deritzona. Uzkitik hurbileko larruzala kentzen zaie ardiei, infekzioak prebenitzeko. Berotzen globala gehien bultzatzen duena da. Erresuma Batuko Ingurumen, Elikadura eta Nekazaritza departamentuaren kalkuluen arabera, 2.278 hektarea lur behar dira artile-zuntz tona bakoitzeko. Alpaka-artileak behar ditu gai kimikorik gehien bere tindatzerako (COSH, s. f.-b).

- ⊕ **Alpaka-zuntza:** Alpakak izugarri errespetatzen du bere natur ingurunea. Ibiltzean, jatean, animalia egiazki dago pentsatua ingurumeneko oreka mantentzeko, baita giza abusuak daude-nean eta artzaintza neurrigabea sortzen denean ere. Askoz ere kalte gutxiago eragiten du kotoi-ekoizpenak edota beste zuntz sintetiko batzuen ekoizpenak eragindakoa baino. Alpakaren produktu izarrari ematen zaion izena ZUNTZA da, lanolina eduki txikia duelako, eta argi bereziten da ardi-artiletik. Alpaka-zuntza goi mendiko larre naturaletatik dator. Erakunde askok ekoizten dute hari artisaua, eta tindu naturalak erabiltzen dituzte hura tindatzeko eta, horrela, produktu artisauak eskaintzeko; horrela, alpakaren linea naturala nabarmenduta: haren elikadura hezeguneetan eta haren habitata goi mendiko belardi naturaletan. Uste da artisau-hariz eta tindu naturalez tindaturiko ehungintza-prozesuaren azken zati hori dela gaur egungo joera, eta, horren osagarri, kolorezko alpaka-zuntza erabiltzeko gero eta eskari handiagoa dagoela (kolore naturaleko 26 tonalitate daude), eta horiek kolore naturaleko hari bihurtzen ari direla.
- ⊕ **Zeta:** hainbat modutan sor daiteke, batzuek harra gehiago errespetatzen dute eta beste batzuek gutxiago, baina begano batek ez du zetazko jantzirik kontsumituko.
- ⊕ **Biskosa** pertsona batek modu artifizialean sortutako lehen ehuna da, iluntasun handiko prozesua da, kutsadura handia eragiten du eta inpaktu handia du giza osasunean. Gai kimiko asko erabiltzen dira zurezko pulpa eraldatzeko prozesuan (Slow Fashion Next, 2022).
- ⊕ **Kalamua:** kotoiak baino gutxiago kutsatzen du. Kalamuak gaixotasun eta izurri gutxi ditu, eta ur eta lur gutxi behar ditu. Erregai fosilen erabilera eta energia-kontsumoa nabarmen handiagoak dira kalamuarekin kotoiarekin baino. Kalamua CO2 material negatiboa da, igortzen duena baino CO2 gehiago gordetzen du (COSH, s. f.-c).
- ⊕ **Tencel-Lyocell:** Material naturalak prozesu kimiko baten bidez disolbatzen dira lehenik. Horrek masa bat sortzen du, galbahe baten bidez presionatzen dena, eta gero, harietan iruten dena. Hari horiek, aldi berean, oihal batean ehundu daitezke. Garrantzitsua da jakitea ez dela produktu kimiko toxikorik erabiltzen lyocellaren ekoizpenean, eta disolbatzailearen % 99,5 behin eta berriz erabil daitekeela. Lyocell-zuntz asko eukalipto zuhaitzen zelulosatik sortzen dira Estatu Batuetan eta Portugalen. Zuhaitz hori jatorriz Australiakoa denez, galdera bat sortzen da: zer eragin duten zuhaitz horiek biodibertsitatean. Eukalipto XVIII. mendean iritsi zen Europara. Ordutik, zuhaitza herrialde askotara zabaldu da, batez ere Espainian eta Portugalen. Orain, klima-aldaketaren ondorioz bereziki, eukalipto mehatxu handiagoa da ekosistema askorentzat. Lyocellak ingurumenean ondorio kaltegarriak dituen arren, material jasangarrienetako bat da. Lyocellek ur gutxiago erabiltzen du, produktu kimiko gutxiago behar ditu eta biodegradagarria da. Biskosa pertsona batek modu artifizialean sortutako lehen ehuna izan zen (COSH, f.-d s.).
- ⊕ **Poliesterra:** Poliester izen kimikoa politik dator; horrek "asko" esan nahi du, bai eta ester hitzetik ere, eta hori konposatu kimiko organikoa. Material berriztaezina da. Erregai fosilek ondorio kaltegarriak dituzte ingurumenean. Baina ba al zenekien arropa asko petrolioz egin dagoela? Eta ez pixka bat bakarrik. Modaren industria, neurri handi batean, petrolio-industriaren mendean dago. Gaur egun, poliesterra jantziatarako zuntzaren ekoizpenaren % 52 inguru da. Hori 57 milioi tona dira! (Textile Exchange, 2021, 4. or.). Material hori ekoiztea erakargarria da, erabiltzeko erraza delako, baina soilik ez badiegu haren inpaktuei erreparatzen, eta soilik etekinaren maxi-

mizazioari erreparatzen badiogu. Birziklatutako aldaera (PET birziklatua) material jasangarri gisa goraiatzeko da bereziki, «azterna ekologiko txikia» delako. Baina kontuz! plastikoz egindako produktu orok ingurumen- inpaktuak baitu (COSH, s.f.-e). Txina poliesterezko ehunen ekoizle handiena da, baina Indiak, Japoniak, Indonesiak eta Taiwanek ere materialaren zati handi bat ekoizten eta esportatzen dute (Sewport Support Team, 2023). Poliesterrak eragin kaltegarria du ingurumenean bere «bizitzako etapa» guztietan. Petrolioaren arroparako erabil daitezkeen poliestere bihurtzeko, energia eta ur kantitate handia behar dira materiala berotzeko eta hozteko, besteak beste. Ellen MacArthur Fundazioaren 2017ko txostenaren arabera (21. or.), poliesterraren ekoizpenak 2050erako karbono-aurrekontuaren % 26 baino gehiago ere kontsumitu lezake, tenperatura 2 gradu igotzeko aukerak baita!

GreenPeace-ren arabera (<https://www.greenpeace.org/mexico/blog/9514/fast-fashion/>, 2023) goranzko joerak jarraitzen badu, 2050erako petrolioaren kontsumoa hirukoiztu egingo litzateke, 300 milioi tonara iritsita, arropa ekoizteko.

Gainera, hornidura-katean hondakinak gaizki kudeatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake, eta garbigailuko arropen garbiketetan mikroplastikoak askatzea eragin dezake. EBren arabera, europarren ia 26 kilo ehun erabiltzen dituzte urtean, eta 11 kilogramo inguru botatzen dituzte. Arropa erabilia EBtik kanpora esporta daiteke, baina gehienak (% 87) erre egiten dira edo zabortegetara botatzen dira; poliesterra ez baita biodegradagarria (Europako Legebiltzarra, 2022). Perfluoridunak-PFC disruptore endokrinoak dira (EDC), hau da, gure sistema hormonalaren funtzionamendu egokia oztopatzen duten substantziak dira eta ugalketa-funtzioan kalteak eragin ditzakete, hala nola emankortasuna galtzea, metabolismoa kaltetzea, bai eta minbizia ere hormonen mendeko organoetan, hala nola bularreko, testikulu eta tiroidea. Arroparen PCFak ekosistemetara askatzen dira, ekosistemak etengabe kutsatuta, oso iraunkorrak baitira. Urrun-urruneraino mugitu daitezke eta biometagarriak dira, hau da, organismo bizidunetan metatzen dira (Greenpeace, 2016). Substantzia kimiko guztiak erregistratzeko sistema bakarra sortu da Europarako. Horretarako, Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentzia (ECHA) eratu da, erregistroaren kudeaketa administratibo, tekniko eta zientifikoaz arduratzeko.

Laburbilduz, lehengai naturalak biodegradagarriak dira, ehun sintetikoekin nahasten ez badira edo kimikoekin (poliesterra) eraldatzen ez badira, baina lur eta ur asko behar dute. Material artifizialen kasuan, ur gutxiago behar dute, baina gai kimikoak erabiltzen dituzte, eta, ondorioz, ez da biodegradagarria. Azken kasuan, material sintetikoek ur gutxiago behar dute eta CO2 azterna txikiagoa sortzen dute, baina mikroplastikoak eta kutsadura sortzen dituzte azken fasean, zabortegetara botatzen baitira.

Hau da, zure kamisetaren materialak sortzen duen inpaktuari begirada holistikoa egin behar zaio. Quantis-en azterlan baten arabera (2018), honako material hauek erabiltzen dira mundu mailan: % 64 Synthetics (polyester), % 24 Cotton, % 6 Other natural fibres (linen) eta % 6 Cellulosic (viscose).

Kotoi-laborea planetan landatutako lurraren % 3 da gutxi gorabehera, eta mundu mailan nekazaritzan baliatzen diren pestiziden % 25 erabiltzen da. Laboreen % 50ean, gutxi gorabehera, ura ureztatzeko dator, eta, askotan, ur eskasia duten tokiak izaten dira, hala nola Uzbekistan, non BCI kotoia landatzen den: Better Cotton Initiative.

BCI kotoizko ehunek kotoiaren erabilera arduratsua ziurtatzen dute: ekoizpen hobearen erabilera, hobearen hazten den lekuetako ingurumenarentzat, eta hobearen munduarentzat (Techs, s. f.). Kotoi organikoa kotoi labore guztiaren % 1 baino gutxiago da (Moda Basura- Carro de Combate txostena, 44. orrialdea, 2023).

Organiko terminoak lehengaiari egiten dio aipamena: genetikoki eraldatuak ez diren haziak erabiltzea da, eta pestizidarik ez erabiltzea, kaltegarriak izan daitezkeelako nekazarientzat, jantzigintzako langileentzat eta azken jantzia jantzen duten pertsonentzat.

Gaur egun, munduko kotoi-esportatzaile nagusia Estatu Batuak dira, eta labore gehiena Texasen hazten da. Kotoi organikoaren sailek % 94 gutxiago isurtzen dute berotegi-efektuko gasetan, ohiko kotoiaren sailen aldean (Slow Fashion Next, 2022).

Zure kamisetaren karbono-aztarna berotegi-efektuko gas-isuriaren bolumen zenbatetsia da, bereziki karbono dioxidoa, zuzenean edo zeharka bere balio-kateko edozein jardueran egitean sortzen dena.

🌱 **Zure kamiseta kotoizkoa baldin bada, ba al zenekien 2.000 litro ur behar direla 200 gramo kotoiarekin egindako kamiseta baterako? Pertsona batek bere bizitzan batez beste 3 urtez edaten duen ura da.**

🌱 **Bakero bat bat fabrikatzeko, 10.850 litro ur behar dira (Chapagain et al., 2005, 21. or.).**

Zenbaki ikaragarriak dira, ezta? Egiazki ez gara ohartzen gure kotoizko kamisetak daraman kotoia alde aurretik landu behar izan dela eta ur asko behar izan duela ekoizpen-prozesua amaitu ahal izateko.

Espainiako familiek 133 litro ur kontsumitu zuten bana beste biztanleko eta eguneko 2018an; hori % 2,2ko mu-
rriketa izan zen 2016ko 136 litroen aldean (Estatistikako Institutu Nazionala, 2022, 1. or.).

Lehengaien ekoizpena

Lehengaien ekoizpenean hariaren ekoizpena, ehunaren ekoizpena eta prozesu hezeak bereiz ditzakegu. Haria ehun-zuntzak okertuz egiten da, dela eskuz, dela ardatzak lagundurik edo makinaren bidez (Materiales Ecológicos.es, s. f.). Harrietatik abiatuta ehunak sortzen dira ehungailuetan. Ehun-mota ugari daude, hainbat ehun-mota sortzen dituztenak (kalada-ehunak, puntuzkoak, itzulerako gazak...) (Ferrer Dalmau Textil, 2020). Prozesu hezeen ingeniari-tza ehungintzako ingeniari-tzaren ildo nagusietako bat da, ehungintzako prozesu kimikoen ingeniari-tzari eta hari lotutako zientzia aplikatuei dagokienez. Ehungintzako ingeniari-tzako beste hiru ildoak harien ingeniari-tza, ehunen ingeniari-tza eta jantzien ingeniari-tza dira. Ildo horren prozesuak etapa urtsu batean gauzatzen dira. Beraz, prozesu hezea esaten zaio, eta normalean aurretratamendua, tindatua, inprimaketa eta akabera hartzen dituena.

Prozesu hezea, oro har, zuntzez, harizpiz eta elkarri lotutako hariz fabrikatutako mihiztaduraren gainean egiten da. Zuntz, harizpi eta hari horiek gainazal nabarmena (laua) dute, beren loditasunarekiko, eta erresistentzia mekaniko egokia egitura kohesiboa emateko. Bestela esanik, prozesu hezea zuntz, hari eta ehun manufacturatuaren gainean egiten da (hmong, f. m.).

Zuntza ekoizteko faseko jarduerak arrisku sozialen proportziorik handiena eragiten dute, hala nola haur lana, genero-desberdintasuna, toxina eta arriskuen eragina jasotzea, etab. (UN environment programme, 2020, 30. or.). Iruntzeko, ehuntzeko, ehun-ekoizpeneko eta balio-katea muntatzeko etapak ere arrisku sozialekin daude lotuta, eta irundako gaien eta ehunen ekoizpena garrantzitsuena da zuntzak ekoiztu ondoren, eta, gero, jantziak muntatzea (33. or.).

2030 Agendak honako helburu eta jomuga hauek aurkeztu dizkigu, benetako aldaketa lortu ahal izateko. 3. 13. 14. eta 15. GJHak aukeratu ditugu zure kamisetaren ehungintza-prozesuaren atal honetan.

3. Helburua: Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea Kamisetaren bidaiaren bi une hartuko ditugu ardatz. Alde batetik, lehengaien ekoizpenean gai kimikoak eta pestizidak erabiltzen dira, eta horrek eragin kaltegarria dauka pertsonengan eta planetan. **3.9 helburuan** nabarmentzen den bezala, 2030erako, nabarmen murriztea produktu kimiko arriskutsuek eta airearen, uraren eta lurzoruaren kutsadurak eragindako heriotzen eta gaixotasunen kopurua.

Jantzia ekoizteko prozesuan, gizakien osasunak ere ondorio larriak jasotzen ditu tindu- eta sandblandig-prozesuan; horrek, izan ere, gaixotasun larriak sortzen dizkie hartan lan egiten duten pertsoneri. Legediak bigunagoak dira, eta inpaktua kaltegarria da ehungintzaren prozesu horiek deslokalizatzen diren herrialdeetan. Garrantzitsua da eragin sozial eta politikoa egitea, lege horiek aldatzeko eta planeta eta pertsonak babesteko. Lantegiak guna garbiak eta seguruak izan behar dira jarduera ekonomikoa garatzeko, baina hori ez da inola ere herrialde pobretuen egoera.

6. Helburua: Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea. Ura behar-beharrezko baliabidea dugu gizaki gisa bizi ahal izateko. Planetak baliabide horretaz hornitzen gaitu, baina badakigu badirela ur eskasiak eragiten dituen migrazio mugimenduak eta gero eta gehiago izanen direla munduko beste leku batzuetan. Nazio Batuen arabera, ibai, aintzira eta akuiferoetatik ateratzen den ur guztiaren % 70 inguru ureztapenerako erabiltzen da; % 22, industriarako, eta % 8, etxerako. Espainian, 2005ean, nekazaritzarako ureztapenak uraren % 75 kontsumitzen du; hiriak hornitzeko kontsumoa % 12 da, eta industriak % 10 besterik ez du erabiltzen 4).

⊗ **6.3 helmuga.** Hemendik 2030era, uraren kalitatea hobetzea, kutsadura murriztuz, hondakinak ez botaz eta gai kimiko eta produktu arriskutsu ahalik eta gutxien sortuz; halaber, araztu gabeko hondakin-uren ehuneko erdira jaitziz, eta arriskurik gabeko birziklapena eta berrerabilpena mundu osoan nabarmen handituz.

⊗ **6.4 helmuga.** Hemendik 2030era, baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra handitzea sektore guztietan eta ur geza jasangarritasunez atera eta hornitzea ur eskasiari aurre egiteko eta urrik ez duten pertsonen kopurua nabarmen murrizteko.

- 6.6 helmuga. Hemendik 2030era, urarekin loturiko ekosistemak babestu eta lehengoratzea, barne direla oihanak, mendiak, hezeguneak, ibaiak, akuiferoak eta aintzirak.

1975etik hona, ia hirukoiztu da munduko ehungintza zuntzen ekoizpena. Gaur egun, ehungintza zuntzen % 64 sintetikoak dira. Zuntzik erabiliena poliesterra da, karbono-prozesu trinkoen bidez ekoiztua. Prozesu horiek 70 milioi petrolio-upel baino gehiago behar dituzte urtero. Gainerako zuntzak nagusiki kotoizkoak dira, eta lurra eta ura erruz erabili behar dira.

Ehunak ekoizteko prozesuek gai kimiko asko eta askotarikoak erabiltzen dituzte. 3.500 substantzia inguru erabiltzen dira ehungintzako ekoizpenean. Haietatik, 750 giza osasunarendako arriskutsutzat jo dira, eta 440 ingurumenarendako arriskutsutzat (European Environment Agency, 2023).

13. Helburua: Premiazko neurriak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko. Karbono dioxidoaren (CO₂) eta berotegi-efektuko beste gas batzuen mailak inoiz ez bezalakoak izan ziren atmosferan 2019an (Nazio Batuak, 2015). Ukaezina da klima-aldaketa gertatzen ari dela eta zientzia bidez dago frogatua. Ehungintzak hainbat inpaktu eragiten ditu eta, ondorioz, sekulako aldaketak gertatzen ari dira meteorologian, muturretik muturrera joanda: lehorteak, uholdeak, muturreko hotz eta bero tenperaturak.

- 13.2 helmuga. Klima-aldaketari buruzko neurriak hartzea politika, estrategia eta plan nazionalan.

- 13.B helmuga. Behar diren mekanismoak sustatzea, plangintza eta kudeaketa eraginkorra egiteko gaitasuna areagotze aldera, klima-aldaketari dagokionez, gutxien aurreratutako herrialdeetan eta garapen bidean diren uharte-estatu txikietan; betiere emakumeengan, gazteengan eta tokiko komunitateetan zein baztertuetan azpimarra eginez.

14. Helburua: Itsas azpiko bizitza. Ibaiek daramatzate hirietako pasarelek eta kaleek denboraldian agertuko dituzten koloreak; izan ere, pestizidak, gai kimikoak eta mikroplastikoak itsas azpiko eta ekosistemako zati bateko bizitza hiltzen ari dira. Mikroplastikoak itsasora iristen dira gure arropa-garbigailuetatik abiatuta. Arrainek mikroplastikoak jaten dituzte, eta guk, pertsonok, arrainak jaten ditugu, kutsaduraren zirkulua itxita. Eta beste mikroplastiko batzuk airera isurtzen dira.

- 14.1 helmuga. Hemendik 2025era, denetariko itsas kutsadura prebenitu eta nabarmen murriztea; bereziki, lehorrean egindako jarduerak eragindakoa, barne direla itsas detrituak eta mantengai bidezko kutsadura.

- 14.3 helmuga. Ozeanoak azidotzearen efektuak ahalik eta gehien gutxitzea, baita maila guztietan lankidetzaz zientifikoa areagotuz ere.

Ehungintza sektoreak 1.200 milioi tona isurtzen ditu urtero berotegi-efektuko gasetan, hau da, berotegi-efektuko gasen mundu mailako isurien % 10era bitarte.

2020ko abuztuan, Fashion Pact Itunak eta Modaren Industriaren Gutunak klima-ekintzarako agindutakoaren ondoren, Stand Earth erakundeak egindako beste txosten batek ziurtatu zuen sektoreak ez zituela bere klima-helburuak lortuko. Marka batzuek beren isuriak "zerbait" murriztuak zituzten bulegoetan edo dendetan, baina askoz ere gutxiago fabrikazioan; beraz, murrizketa handiagoak beharko lirateke (Moda Basura txostena, Carro de Combate, 13. orrialdea -2023).

Ehungintza laugarren industria da lehengai erabiltzen; bigarrena, lurzorua erabiltzen, eta bosgarrena, berotegi-efektuko gasak isurtzen, European Environment Agency-ren arabera (2023). Ehungintzak natur baliabideak erabiltzen ditu bere prozesua gauzatzeko. Natur baliabideak erabiltzea moda azkarrak proposatzen duen moduan, hau da, jantzi-bilduma berriak 15 egunean behin dendetan jarrita... Horrek arriskuan jartzen du lurzoruen eta lehengaien erabilera eta, ondorioz, inpaktu kaltegarria betiketzen du ingurumeneari. Jeans pare bat egiteak auto bat 130 km baino gehiagora gidatzeak adinako gasa sortzen du, berotegi-efektuko gasetan (Reichart eta Drew, 2019).

15. Helburua: Basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoritzea, eta biodibertsitatearen galera gelditzea. Hainbat ehunen lehengai lantzeko lurren erabilera jarri behar da arreta; izan ere, ehungintzak lurzorua azalera handiak erabiltzen ditu.

- ④ 15.3 helmuga. 2030erako, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurrak eta lurzoru degradatuak lehengoritzea, barne direla basamortutzeak, lehorteak eta uholdeek kaltetutako lurrak, eta lurzoruen degradazio neutroa izanen duen mundua lortzen saiatzea.
- ④ 15.5 helmuga. Premiazko neurri esanguratsuak hartzea habitat naturalen degradazioa murrizteko, dibertsitate biologikoaren galera gelditzeko eta, 2020rako, espezie mehatxatuak babesteko eta haien desagertzea eragozteko.

«Ehungintza da substantzia kimiko arriskutsuen erabiltzaile handienetako bat eta munduan ur geza gehien kutsatzen duen industrietako bat. Urte askotan zehar, ehungintza ezarri den tokiko komunitateek ikusi dute bertako ibaiak era askotako koloreak hartzen zituztela, denboraldi bakoitzeko joeraren arabera, nazioarteko moda-marketarako jantziak tindatzearen eta egitearen ondoriozko isurketek eraginda. Isuri koloretsuen azpian are arazo larriagoa dago, nahiz eta batzuetan ikusezina izan, hots, substantzia kimiko arriskutsuak. Substantzia horietako batzuk kartzinogeniko ezagunak dira, edo gizakiengan eta/edo animalien hormona-sistemak aldatzen dituzte. Tokiko agintariek behar adinako kontrolik ez dutenez, isuriok ur gezako baliabideak kutsatzen dituzte eta, azkenean, ozeanoetara iristen dira. Beraz, zenbaitetan, substantzia kimiko arriskutsuak elikadura-katean metatzen dira, eta, azkenean, eragina izaten dute hego hemisferioko tokiko komunitateen osasunean eta biziraupen-baliabideetan» (Greenpeace, 2018, 9. or.).

Itsas espezieetako gai kimiko horiek arrain-kontsumoaren bidez itzultzen dira pertsonengana. Industria askok beren ekoizpena deslokalizatzen dute, besteak beste, beste toki horietako lege bigunek ez dituztelako ikuskatzen moda azkarra ekoizteko behar diren gai kimikoek naturan eragindako kalteak.

Iritsi da jantzia egiteko unea, zure kamiseta, alegia!

3 Jantzigintza, deslokalizazioa eta garraioa

Ziur aski, zure kamisetaren *madea* zure etxetik kilometro askotara dago. Ondoren azalduko dugun bezala, enpresa askok beren ekoizpena beste herrialde batzuetara deslokalizatzen dute, planetaren eta pertsonen gaineko inpaktuei buruzko lege bigunagoak dituztelako. Pentsatu al duzu zein eskuk ekoiztu duten zure arropa eta zein baldintzatan? Moda azkarrak balio-kate linealari eta kate-lanari erantzuten die. Modaren sektoreak 75 milioi pertsona enplegatzen ditu mundu osoan. **Moda azkarrak ondorio sozialak ditu: haurren esplotazioa, emakumeen esplotazioa, soldata prekarioak eta lan baldintza txar-txarrak** (Oxfam France, 2020). Ondorio horiek hain dira garrantzitsuak, ehungintza esklabotza modernotzat jotzen baita (Fashion Revolution, 2019, 9. or.).

Emakumeak ehungintzako 60 milioi langile dira mundu osoan, eta batez beste 12 ordu egiten dituzte egunean. Dendan saldutako kamisetak 29 € balio du, baina ehungintzako kateko langileek 0,18 € besterik ez dute jasotzen, hau da, produktuaren prezioaren % 0,6. Human Rights Watch GKEaren txosten batean, «langile ikusezinek» lan-eskubideen urraketa ugari salatu dituzte, bereziki Pakistanen. Ehungintzako emakume langileak beren bizilekuan esplotatzen dituzte, lan-zuzenbidearen erregulaziotik kanpo geldituta (Oxfam France, 2020). Gainera, ActionAid erakundeak egindako ikerketaren arabera, Bangladesheko jantzigintzako langileen % 80k zuzenean ikusi edo jasan dute sexu-indarkeria edo jazarpena lantokian.. Zenbaki kezagarri horrek erakusten du jantzigintzaren industria osoan emakumeek eta neskek babes handiagoa behar dutela, Bangladesheko funtsezko industria-sektoreetako bat baita (ActionAid, 2019, 1. or.).

Horrela, enplegatuen % 80 inguru emakumeak dira, baina jantzigintzako langile asko eta asko lan-baldintza txar-txarretan lan egiten duten pertsona arrazializatuak dira. Modaren industriaren sustrai kolonialak agerikoak dira gaur egun ere, baliabidean erauzi eta pertsonen lanaren esplotazioa egiten baita; beraz, esan daiteke arrazakeria eta genero-diskriminazioa moda azkarraren erdigunean daudela (Oxfam UK, 2019).

Beste alderdi garrantzitsu bat haurren lan behartua da. AEBko Lan Departamentuaren 2018ko txosten batek **lan behartuaren frogak aurkitu zituen Argentina, Bangladesh, Brasil, Txina, India, Indonesia, Filipinak, Turkia, Vietnam eta beste herrialde batzuetako modaren industrian** (Office of Child Labor, 2022).

Asko hitz egiten da gugandik urrun dauden herrialdeei buruz, baina zertan da Europako ekoizpena? Ehungintzako langileak ez daude soilik Asian esplotaturik. **Ekialdeko Europako 1,7 milioi langilek baino gehiagok ere baldintza txarretan ekoizten dute kateko arropa.** Europako ia marka guztiak Europako eskualde horretatik hornituko dira. Lantegiak nahiko hurbil daude, egun bat edo bi behar dira errepidez garraiatzeko. Hainbat astez itsasontziz, aldiz, Asiatik inportatzen diren produktueterako. Dena den, produktu bat ongi saltzen denean, berehala bildu behar da berriro, eta horregatik da interesgarria merkatuetatik hurbil dauden lantegiekin lan egitea. Hurbiltasunak ere aukera ematen du eskaerak kopuru txikietan egiteko, eta, horregatik, luxuzko marka asko hornitzen dira Ekialdean. Lantegiak hainbat eta preziatuagoak dira, zenbat eta produktu gehiago egin «Made in Europe» etiketarekin, edota ikusten bada jantzigintza artisaua dela eta Europako Zuzenbidearen arauekin bat ari diren langileek eginak direla. Zoritxarrez, ez da horrela. Herrialde batzuetan, ehungintzaren batez besteko errenta bizitzako gutxienekoa baino hamar aldiz txikiagoa da. Emakume langileek salatu dute produktu kimikoen eraginpean ari direla, 40 gradutan, aparteko orduak ez zaizkiela ordaintzen eta nagusien larderia (Pollet, 2018).

Setem erakundearen arropa garbiaren aldeko kanpainak hainbat gai landu nahi ditu:

- ⊕ **Gardentasuna:** Jantzen ditugun arropetako etiketetan dagoen ilunkeria kezkarria da, nekeza baino nekezagoa baita jakitea nondik datorren gainean daramagun jantzia (haren diseinua, laborantza, ekoizpena, kremaiera, botoiak, tindua...). Hornidura-kateetan gardentasun handia goz jokatzeko eskatzen diegu markei..
- ⊕ **Soldata Duinak:** Ehungintzako langileek (gehienak emakumeak) 96 dolar inguruko soldata jasotzen dute hilean Bangladeshen. Herrialde horretako soldatak ezartzen dituen gobernu bazterdeak esana du ehungintzako langileak hiru aldiz eta erdi soldata handiagoa jaso beharko lukeela herrialde horretan duintasunez bizitzeko eta oinarrizko erosotasunak eskura izateko. Arropa markek eta banatzaileek sekulako dirutza irabazten dute eskulan merkari esker eta, bitartean, mundu osoko jantzigintzako langileek ez dute behar adina irabazten duintasunez bizitzeko.
- ⊕ **Segurtasuna eta Osasuna:** Lan-baldintzak eskubide urratua dira moda azkarrean diharduten lantegi askotan, eta haietan esklabotza errealitatea da. Jantziak egiteko prozesuan, eta joeraren arabera, adibidez, bakero higatuen modak arnas gaixotasunak eragiten ditu sandblasting teknika erabiltzearen ondorioz. Segurtasunak ez du legeria zorrotzik, eta horrek kostu txikiagoak eta irabazia maximizatzea dakar. Lan egiteko eskubidea dugu gure bizitza arriskuan jarri gabe, hori ere giza eskubidea da.
- ⊕ **Elkarte Askatasuna:** Sindikatzea eskubidea da, baina lantegi horietako askotan zigortua dago. Ehungintzako langileen ehuneko txiki bat baino ez dago sindikatuta, eta horietako asko enplegatzaileek kontrolatutako erakundeak dira eta nagusien interesekin bat jotzen dute, langileen interesak bazterturik (sindikatu horiak edo bertikalak esaten zaie).

Nazioarteko Arropa Garbiaren Aldeko Kanpainak 8 herrialdetan egin ditu ikerketak; zehazki, Europako arropa-multinazionalak hornitzen dituzten 40 lantegitako 670 langileren testigantzak bildu ditu, eta horien arabera, langileen lan-baldintzak ez dira iristen erosleen jokabide-kodeetan zirriborratutako nazioarteko gutxieneko estandarretara; erosle gehienak BSCI-koak dira. RSCz ari garenean, enplegu duina eskaintzeaz ari gara, eta dumping soziala ez egiteaz langileen eskubideen eta baldintzen gainean.

Enpresa Arduratsuen Aldeko Plataformak (PER) Espainiako Gobernuari aldarrikatzen dio Europako Zuzentzarau eraginkor eta asmo handiko bat onar dezala, enpresek jasangarritasunaren arloan behar duten arretari buruzkoa, Espainia EBko Kontseiluaren Presidentzian dagoen bitartean. Zuzentzaraua onartzea funtsezkoa da enpresek haur lana, lan behartua, kutsadura eta ingurumenaren degradazioa sustatzen dituzten praktikak ezabatzeko, eta aurrerapauso handia litzateke ekonomia global zuzen eta jasangarritarantz. Enpresa Arduratsuen Plataforma 20 erakunde eta plataformak osatutako aliantza bat da: 530 gizarte-erakunde baino gehiago ditu eta 3 milioi bazkide. Erakunde horiek batera lan egiten dute, behar bezalako arretari buruzko legeria egon dadin giza eskubideen eta jasangarritasunaren arloan.

Sinadurak biltzeko kanpaina: <https://act.wemove.eu/campaigns/la-justicia-es-un-bien-comun>

Gizartean babes handia dago horrelako kanpainen alde. Izan ere, YouGo 9-k egindako inkestaren arabera, 10 espainiarretatik 1 ados da enpresek legez giza eskubideen urraketari aurrea hartu eta isuri kutsagarriak murriztu behar izatearekin.

9. Helburua: Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea. Ehungintzako lantegietan segurtasuna oinarritzat duen legedia betetzea lehentasunezkoa da sektorerako eta jardunbide jasangarriak ezarri ahal izateko.

🔗 **9.4 helmuga.** Hemendik 2030era, azpiegitura modernizatzea eta industriak birmoldatzea, jasangarriak izan daitezen, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiliz eta teknologia eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren aldetik arrazionalak erabiltzea sustatuz, eta herrialde guztiek zein bere gaitasunen arabera neurriak hartzea lortuz.

Deslokalizazioari esker, zure kamisetak ibilaldi luzea egina zuen zuk erosi baino lehenago. Begiratu mapa batean zenbat kilometrora dagoen zure kamiseta egin den herrialdea. Garraio horrek ingurumena ere kutsatzen du, bizi garen ingurunea. Zenbat kilometro daramatza zure kamisetak gainean zure armairura iritsi arte?

Deslokalizazioak etekina jartzen du pertsonen eta planetaren aurretik. 70eko hamarkadan, enpresak beren ekoizpena deslokalizatzen hasi ziren, irabaziak handitzeko, horrek herrialde ekoizleen idiosinkrasian dituen inpaktuak ikusi gabe. 80ko hamarkadan indar handiagoa hartu zuen ekoizpen modalitate horrek ehungintzan, eta 90eko hamarkadan gora egin zuen, eta industria askok bere organigraman sartu zuten. Horrela, etekina ahalik eta gehien handitzea lortzen da, kosturik txikienarekin, baina pertsonengan eta planetan eragin kaltegarria handia sortuta.

Errentagarritasun arloko arrazoiak tarteko, enpresa multinazionalak Hegoaldeko herrialdeetara eramaten dute beren ekoizpena. Azken urteotan, herrialde batzuetan prezioak eta ekoizpen-kostuak handitu direla eta, arropa-markak are merkeagoak diren ekoizpen-lantegietarantz bideratu dute beren ekoizpena (ADEME, 2022). Jotzen da **zure kamisetak 65.000 km ere egin ditzakeela kotoi-alorretik salmenta dendaraino, hau da, 1,5 aldiz planetari itzulita ematea.** Hegazkinak ehungintzan gehien erabiltzen den garraioetako bat izaten jarraitzen du, haren azkartasunari esker. Horrek berekin dakar joan-etorri gehiago egiteko aukera izatea eta, beraz, berotegi-efektuko gas asko isurtzea (Oxfam France, 2020).

Asiako herrialdeetako enpresa batzuek, modu intentsiboagoan ekoizteko, oihala, ehun-makinak eta langileak sartzen dituzte itsasontzi handi batean Europara bidaltzeko. Bidaiak irauten duen asteetan, ekoiztu beharreko moda-jantzien patrioiak jasotzen dituzte, eta itsasontzia iristen denean, ekoizpen guztia itsasontzi barruan egin da, denbora asko irabazita eta eskubide asko galdua. Batzuetan, halaber, programatzaileak (edo bezeroaren arretarako langileak) itsasontzietan sartzen dituzte. Horrela, egunean zortzi, hamar edo hamabi ordu baino gehiago lan egin dezakete han, herrialde horietako lanari buruzko arauak urratu gabe, ontzia «nazioarteko uretan» dagoelako (Alvy, 2005).


8. Helburua: Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea. Hazkunde ekonomikoak giza eskubideak errespetatu behar ditu, eta pertsonak eta planeta erdigunean jarri, jende guztia erabateko duintasunez bizitzeko. Lan jasangarri eta errespetuzkoek kalitatezko enpleguak sortuko dituzte, eta garapena komunitateetan eta hirietan.

- 8.4 helmuga. Munduko baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorra hemendik 2030era bitartean pixkaka hobetzea, hazkunde ekonomikoa eta ingurumenaren degradazioa bereizten saiatuta, Kontsumo eta Ekoizpen Jasangarrien Modalitateei buruzko Hamar Urteko Programaren Esparruaren arabera, herrialde garatuetatik hasita.
- 8.7 helmuga. Berehalako neurri eraginkorrak hartzea lan behartua desagerrarazteko, egungo esklabotza-moduak eta pertsonen salerosketa amaitzeko, eta haurren lan-molde okerrenak ezabatu eta debekatuko direla ziurtatzeko, haur soldaduen errekrutatzea eta erabilera barne; eta hemendik 2025era arte, haur lan molde guztiak amaitzeko.
- 8.8 helmuga. Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile guztientzat, langile migratzaileentzat barne, bereziki emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituzten pertsonentzat.

Zer herrialde daude atzean, ehungintzaren prozesuaren arabera? Argi ikusten da beheko grafikoa irundako gaiak eta ehuna landu eta ekoizteko eta arropa fabrikatzeko deslokalizazioa. Ekintza hori Txinara, Indiara eta Bangladeshera eraman baita. Kontsumoa, berriz, aldatu da, Europa kontsumitzaile handiena baita.

3. Irudia

Geographical breakdown of global apparel production and consumption



Nota. UN Environment Programme

Azkenean, nire kamiseta eros dezaket!

4 Kontsumoa eta salmentak denda fisikoetan eta online

Betidanik, modaren industriak bi bilduma ekoizten zituen urtean: udako bilduma eta negukoa. 2000ko hamarkadaren hasieratik, ordea, moda azkarra eta erabili eta botatzekoa gora doa. **Gaur egun, 130.000 milioi jantzi inguru kontsumitzen dira urtean.** Ekoizpena bikoiztu zen 2000tik 2014ra. Astero, dendetan bilduma berriak eskaintzen dira, gero eta prezio apalagoetan. Dimentsio ekonomikoa alderdi ekologiko eta sozialen gainetik dago. Fast fashionek kontsumitzaileen eskariari erantzuten dio, gehiago nahi baitute eta kostu apalagoan. Publizitateak botere handia du hemen. **Izan ere, sinestarazi digu behin eta berriro kontsumitzeko beharra dugula, eta arlo emozionalean sartu da, kontsumismoa zorion ekarlea dela salduta eta guk horixe pozik erosten dugu.**

Ekoizten den arroparen kalitatea gero eta txikiagoa da, eta joerak gero laburragoak dira; ondorioz, kontsumo neurrigabea areagotzen da. Gainera, arropa ekoizpena hazi ahala, munduan batez beste **arroparen erabilera kopurua % 36 jaitsi da 2000tik 2015era** (Ellen MacArthur Foundation, 2017, 18. Or.).

Pandemiak funtsezko aldaketa ekarri zuen gure erosketa modura, denda fisikoak aldi baterako itxi baitziren. Orduan, salmentan fokalizatu ziren eta aukera paregabea izan zen online salmenta egiteko aukera izan zuten dendentzat. Dena dela, pandemia ez da online salmentaren sustatzaile bakarra. Izan ere, gorakada horrek moda azkarraren marketing praktiketan du jatorria. **Apustua egitea etengabeko nobedadearen eta prezio apalen alde, doako entregaren eta itzulketen alde; alderdi horiek guztiek eraginik, bezeroek aukera ugari dituzte gauzak erosteko, jakinik produktuak askatasunez eta inolako kosturik gabe itzultzeko parada dutela.** Kostu apalean fabrikatutako moda azkarreko produktuek kalitate eta doikuntza arazoak izaten dituzte; beraz, itzulketen sinonimoak dira. Gastu konpultsiboak, beherapenek bultzatua, erosketa osteko damura ere garamatza du askotan, eta itzulketaren eragina handitu egiten da berriro. Itzulketak prozesatzearen kostua eta haien bolumen handiagoa erronka dira txikizkariantzat. Beraz, itzulkinak botatzea da maiz erabakirik errentagarriena. Online itzultzeko tasa orokorra % 25ekoa da industria guztietan, Optoro-ren arabera. Moda-enpresentzat, % 30etik % 50era artekoa da. Eta urtero 100.000 milioi pakete baino gehiago bidaltzen dira (gehienak plastikotan bilduta) munduko hamahiru merkatu nagusietara. Kopuru hori bikoiztu egingen da 2026an (Moda Basura- Carro de Combate txostena, 68. orrialdea, 2023).

Horrenbestez, **online erosketan % 30 inguru itzultzen dira; eta haietako asko zabortegietara eramaten dira. 2020an, kalkulatzen da 2,6 milioi tona hondakin ezabatu zirela horrela Estatu Batuetan bakarrik** (Perry, 2022).

Izan ere, prezio handia eragiten du gure estiloan eta ekintzetan; dela hornidura-katean, dela pasareletan, dela dendetan, dela etxean gure ispiluaren aurrean. **Modaren industria errealtatetik urrun dauden estandarrik ezartzen ari da. Ba al zenekien neurriak asmatu zirela errentagarritasun eta irabazi handiagoa lortzeko?**

Arropa bezala, gorputzaren ezaugarriak denboraldi bakoitzean alda daitezke. Neurriak nazioarteko Normalizazio Erakundeak ezarri zituen. Gobernuak kanpoko erakunde independentea da eta 1947an sortu zen. Erakunde horrek munduko merkataritza errazten du, arau berdinak ematen dituelako nazioen artean. Arau horiek arroparen masa-ekoizpen etengabea ahalbidetzen du irabazi-asmoarekin. Lantegietan, produktuak hainbat neurritan egiten

dira, baina publizitatearentzat, oro har neurri txiki-txikiak edo edo txikiak aukeratzen dira, jendearen gorputzen errealtatetik urrun. Marketin teknika horrek gure autoestimuari egiten dio kalte. Maiz, ez gara ohartzen produktu horiek neurrian eginak daudela modeloentzat eta argazki-saiorako baizik ez. Aldaketak egiten dituzte jantzia ederki egokitzeko. Hori dela eta, **jantzia ederki ikusten dugu webgunean, baina ez gure gorputzean, eta horren frustrazioa eta buruko gaixotasunak eragiten ditu.**

Beste kontua da neurri estandarrek joera handiagoa dutela «mendebaldeko» gorputz mota batean oinarritzeko. Jantzigintzaren industriak ezarritako neurri estandarrak maiz ez datoz bat gorputzen askotarikotasunarekin, patroï bakarra ohi dute. Industriak goputz estandar bat zehaztu du, eta hori erreferentzia da joskintzarako; beraz, gorputzak behartuak daude estandar industrialen gorputz idealean bizitzeko (COSH, s. f.-f). Egoera horrek, gainera, nahasmendu garrantzitsuak eragin ditzaken buruan, hala nola anorexia edo bulimia.

Noizdanik duzu zuk gogoan daukazun kamiseta?, armairuan dago beti?, aldi berezietarako da? Galdera horiek lagungarriak izanen zaizkizu gure arropa zenbat aldiz erabiltzen dugun hausnartzeko.

GREENWASHING Ba al zenekien enpresa batzuek jasangarritasunez jantzen dutela beren marka, egiazki jasangarriak ez badira ere? Orain jende guztia mintzatzen da jasangarritasunaz. Zergatik egiten dute moda jasangarri berri horrekin bat moda azkarreko enpresa handiek? Kontsumitzaileak garen aldetik, garrantzitsua da erne egotea komunikazioarekin, «greenwashing» kanpainek manipulatu ez gaitzaten, eta ahalik eta hobekien onena erabaki dezagun bai guretzat, bai ingurumenarentzat. «Greenwashing» terminoa 1986an erabili zuen Jay Westerveld ingurumen zaleak lehen aldiz (de Freitas Netto et al, 2020). Terminoa erabiltzen da **enpresa batek ekoizpen etiko eta jasangarria egiten duelako itxura faltsua ematen duenean, publizitate engainagarria edo erdi egiak erabiliz.**

Gaur egun, moda azkarrak gero eta gehiagotan erabiltzen du, ikusirik merkatuak erantzukizun handiagoa eskatzen duela jantzien ekoizpenean. Orain, badirudi terminoak ingelesez erabiltzen ez badituzu, inork ez dizula ulertzen; baina jende askok ez ditu kontzeptu horiek erabiltzen, eta horrela ziria errazago sartzan digute. Freitas Netto et al.-en arabera, greenwashing delako jarrerak ingurumen portaera makurra dakar bere baitan eta horri buruzko komunikazio positiboa. Beraz, nahita egiten den ekintza korporatiboa da kontsumitzaileak engainatzeko (2020, 6. or.).

Carro de Combate erakundeak, #ModaBasura 2023 ikerketaren barnean, txosten bat egin dute marka handiek zer-nolako kanpainak egin dituzten 2019tik hona jasangarritasunez ari direlako itxura emateko, eta egiaztatu dute guztietan ere gauza berberak errepikatzen direla: material birziklatuekin egindako bildumak ehuneko ñimiñoak dira salmenta guztien aldean; erakarpen asko kontzeptu lausoetan oinarritzen dira, hala nola “jasangarriagoa da”; eta, batez ere, **eslogan horien artean bakar batek ere ez dio ekiten arazoaren oinarriari, hau da, gaineekoizpenari eta gainkontsumoari.**

Joan den 2022an, inflexio-puntua izan da sektore hobea lortzeko, Norvegiako Kontsumo agintaritzak bi konpainia handi salatu dituelako, biek ere “Higgs Indizea” erabiltzen baitzuten. Salaketen ondorioz, eta beste salaketa batzuk etorriko ote ziren beldurrez, moda enpresak **“Greenhusing”** hasi dira erabiltzen, eta hori isiltasun berdea da, hau da, utzi diote puzteari beren produktuek izan litzaketan alde onak edota zuzenean horri buruzko gezurretan aritzea.

Moda enpresendako arazo nagusietako bat jasangarritasuna da. Izan ere, industriak ondorio konplexuak ekartzen ditu ingurumenera eta gizartera, hala ekoizpenean nola kontsumoan. Negozio-eredu guztiak susta-

tzen du bai erabili eta botatzeko jarrera, bai kontsumismoa. Hortaz, ez daiteke esan ingurumena errespetatzen duenik, inpaktu kaltegarri asko dakartzalako. **Dena dela, presio etengabea egiten da marketin globalaren testuinguruan, merkataritza-praktika onak jasangarritasunarekin bat egiteko, kontsumoa eta aberastasuna ingurumenaren hondamenetik bereizteko itxaropenean.** Gainera, gero eta enpresa gehiagoren iritziz, marketin ekologikoa irtenbide bat da enpresari buruzko irudi positiboa sortzeko edo mantentzeko (Alexa et al., 2021).

COP 27ren baitan (munduko klima-helburuak finkatzen dituen konferentzia) Nazio Batuetako Idazkari Orokorrak, António Guterresek, esan zuen zero tolerantzia izanen zela greenwashing praktikarako (UN News, 2022).

Jasangarritasunari buruzko informazio korporatiboa arautzen duen Zuzentarau berria iazko azaroan onetsi zen, aldeko 525 botorekin eta 28 abstentziorekin. Horrekin bat, enpresek hobeki emanen dituzte beren jarduerari buruzko kontuak jendaurrean; izan ere, aldian-aldian jakinarazi beharko dute zer ondorio duen beren jarduerak pertsonengan eta ingurumenean. Horrenbestez, aurrerantzean, konpainiek ez dute beren irudi berdea garbituko eta EBn merkaturako ekonomia soziala sendotuko da. Era berean, aurrerapausoa ekarriko du jasangarritasun arloko estandarrak maila globalean ezartzeko (Slow Fashion Next, 2023)

12. Helburua: Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea. Oso garrantzitsua da nabarmentzea jasangarritasunak jantzia diseinatzen den une beretik hasi behar duela; bestela, gezurrezko jasangarritasuna izanen da eta prozesu osoan adabaki jasangarriak jarriko dira, baina ez besterik. Jasangarritasunak zeharkakoa izan behar du prozesu osoan eta balio-katean. Egiazki egin behar da kalitatezko eta iraupen luzeko jantzien alde. Europako estrategia berrian, ahalegi-
nak ekodiseinuan jarriko dira eta, horri esker, prozesua jasangarria izan daiteke eta, horretarako, trazabilitatea eta gardentasuna funtsezkoak dira. Bidalketan eta bilgarrietan ere jarri beharra dago arreta. Pertsona batzuek era konpultsiboan erosten dute eta, online erosketaren bidez, 10 jantzi jaso ditzakete etxean, egiazki bat bakarra nahi dutenean; bat bakarra aukeratuko dute haien artean eta gainerakoak itzuliko dituzte inolako kosturik gabe. Marka batzuk kobratzen hasi dira itzulketa bakoitzeko.

Pertsonen beharrak asetzeko baliabide urri eta mugatuak antolatzeko moduaren arabera, eta pertsonetikiko eta planetarekiko harremana antolatzeko moduaren arabera, lineala izan daitekeen ekonomia mota baten alde eginen dugu (moda azkarra) edo ekonomia zirkularraren alde, eta Madre Coraje erakundeaz azken horren alde egiten dugu, hain zuzen ere. Bizimodu bidezko eta jasangarrien alde egiten dugu.

- 12.4 helmuga. Hemendik 2020ra, produktu kimikoen eta hondakin guztien kudeaketa ekologikoki arrazionala lortzea haien bizi-zikloan zehar, hitzartutako nazioarteko esparruekin bat, eta atmosferara, uretara eta lurzorura askoz ere gehiago askatzea, giza osasunean eta ingurumenean dituzten ondorio kaltegarriak ahalik eta gehien gutxitzeko.
- 12.5 helmuga. Hemendik 2030era, hondakinen sorrera nabarmen murriztea, prebentzio-, murrizketa-, birziklatze- eta berrerabilpen-jardueren bidez.
- 12.6 helmuga. Enpresak (bereiziki enpresa handiak eta enpresa transnazionalak) bultzatzea praktika jasangarriak hartzerara eta txostenak aurkezteko zikloan jasangarritasunari buruzko informazioa ematera.

5 Kamisetaren erabilera eta haren bizitza erabilgarriaren amaiera

Nola erabili duzu zure kamiseta? Patroiren bati jarraitu diozu garbitzeko orduan? Garbigailuan sartzen duzu erabili bezain laster edo **behin baino gehiagotan erabiltzen duzu** garbitu aurretik? **Leungarria** erabiltzen duzu? **Lehorgailua** erabiltzen duzu zure jantziak lehertzeko? Garbigailua betetzen duzu piztu aurretik? Zer **programa** erabiltzen duzu garbitzeko? Produkturen bat erabiltzen duzu zure arropak zaintzeko? Gure jantzia nola erabiltzen dugun, ingurumenari modu kaltegarrian eragiten jarraituko dugu edo gure inpaktua ahalik eta gehien gutxitu dezakegu. Eta zure jantziak zenbat aldiz erabiltzen dituzun, horrek ere eragina du: zure kamiseta 3 aldiz erabiltzen duzu eta zaborretara botatzen duzu edo iraunkortasun handia ematen diozu? Zenbat aldiz esan duzu arropaz betetako armairuaren aurrean, ez duzula ezer jantzteko? Eta zure kamisetak, nora joanen da, behin kamiseta hori botatzen duzunean? Inoiz pentsatu al duzu hori?

Ehunak xahutzea: Bazenekien botatzen den arropa guztiaren % 87 zabortegira edo erraustegira eramaten dela? Ehungintza munduko kutsatzailenetakoa da. Horra gizartearen ingurumen-arazo handienetakoa bat. Gaur egun, hondakin plastikoak gaizki kudeatzeak gure ingurunean zer-nolako eragin arriskutsua duen dakigun bezala, gure arropak hondakin izateari utzi behar dio 2030erako. Urtean 134 milioi tona ehun botatzea espero da. Inoiz baino gehiago erosten dugu eta inoiz baino gehiago xahutzen dugu. Urtero, 92 milioi tona ehungai xahutzen dira eta % 13 bakarrik berrerabiltzen edo birziklatzen da. Birsalmentaren arazo larri bat dazer gertatzen den saltzen ez denarekin. Ehunen birziklapena ez dago oso garatua, eta, oraingoz, ez dago argi nork hartuko dituen bere gain materialen zirkulartasunerako behar diren inbertsioak eta azpiegiturak, non instalatuko diren, ezta nola konektatuko diren sistemako beste puntuekin ere, bideragarriak izan daitezten (Moda Basura- Carro de Combate txostena, 68. orrialdea, 2023). Fast fashion jantzien erdiak baino gehiago urtebetean baino gutxiagoan botatzen dira. Poliesterrak 200 urte baino gehiago behar ditu deskonposatzeko, eta isuri toxikoak sortzen ditu airean, lurzoruan eta uretan (Slow Fashion Next, 2022). Ellen MacArthur Fundazioak kalkulatu duenez, abandonatutako ehunen kamioikada bat botatzen dela zabortegira edo errausten dela segundo bakoitzeko.

Ehun-hondakina: Gaur egun, elkarte bat eratu berri da Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboa (SCRAP) osatzeko. Sistema horiek konplexuak direnez, legeak aukera ematen du RAP modu kolektiboan aplikatzeko. <https://fashionunited.es/noticias/empresas/constituida-la-scrap-para-la-gestion-de-los-residuos-textiles-en-espana-por-decathlon-h-m-ikea-inditex-kiabi-mango-y-tendam/2023011240146>

Hondakin horiek estatu mailan kudeatzen dira eta Ehunak Kudeatzeko Sistema Integratua (SIG) erabiltzen da. Une honetan, Espainian ari dira abian jartzen. Fundazio bat da, ekoizle edo fabrikatzaile handiek osatua, kasu honetan ehungintzakoek osatua (Inditex, Mango...). Enpresa horiek dirua jartzen dute Fundazioan arropa behar bezala birziklatzea lortzeko; horretarako, hainbat eragile behar dituzte, hala nola Hondakinen Kudeatzaileak, arroparen zati bat jasotzeko; <https://www.residuosprofesional.com/sistema-colectivo-residuos-textiles/> SIGaren izena oraindik ez dago sortua; uste dugu hilabete batzuk beharko direla SIG gisa eratu eta abian jartzeko.

Enpresa bat da eta prozesu osoan elkarreragiten duten eragileak antolatzen ditu: administrazio publikoak, herriarrak eta birziklatze-enpresak.

Ehun-hondakinen sailkapena:

- ⊗ Industria osteko hondakina: ehun-oihal baten patroia baten bolumenak ebakitzetik sortutako txatalak dira.
- ⊗ Kontsumo aurreko hondakina: merkatuan inoiz jartzen ez diren jantziak (adibidez, akatsak dituzten jantziak).
- ⊗ Kontsumo osteko hondakina: erabili diren eta bizitzaren amaierara iristen diren jantziak dira, edo jantzi etiketadunak ere zabortegira iristen da.

Gaur egun, ez dago jantzien bizi-ziklo zirkularra osatzen duen eskala handiko birziklatze-sistemarik, eta egun daudenek ez dute berdintzea lortu lehengai birjinez egindako jantzien kalitatea, eta behartuak daude zuntz birziklatuak zuntz birjinekin nahastera.

Ehun-hondakinak Espainian (Slow Fashion Next, 2022):

- ⊗ Zabortegietara iristen den materialaren % 10-15 ehun-hondakina da.
- ⊗ Ehun-hondakinen birziklatze-tasa oso txikia da.
- ⊗ % 13 soilik birziklatzen da, eta downcycling edo balorizazio energetikoa egiteko erabiltzen da.
- ⊗ Orain arte, merkatuan jarritako produktuen % 1 soilik birziklatzen ziren produktu berriak egiteko; hori orain aldatuko da Europako legeria berriarekin.
- ⊗ 80ko hamarkadan, erabilitako arropa senideei edo hurbileko pertsonari ematen zitzaion.
- ⊗ 90eko hamarkadan elkartasun komunitarioko bideak erabiltzen ziren.
- ⊗ Fast fashion bi aldiz ugartu da mende honetan, hondakinei konponbiderik eman gabe.
- ⊗ ASIRTEXen arabera (Ehunak Birziklatzeko Iberiar Elkarteak), espainiar bakoitzak, batez beste, 34 jantzi kontsumitzen ditu urtean, eta 10-14 kg arropa botatzen ditu, eta arropa-edukiontzietan 1,5-2,5 kg baizik ez du uzten.
- ⊗ Arropa berrerabilgarriaren % 70 Kenya, Uganda, Tanzania edo Ruandara esportatzen da.
- ⊗ Erabiltzen dena baino askoz gehiago ekoizten da, eta askotan arropa erabili gabe ere botatzen da. Europan, pertsona bakoitzak 11 kilo ehun-hondakin sortzen ditu urtean.
- ⊗ Ia 1.000.000 tona ehun-hondakin iristen dira urtero zabortegira
- ⊗ Botatzen denaren % 12 baizik ez da biltzen.
- ⊗ Ez da erraza jantzi erabiliak lehengoratzeari (botoiak eta osagarriak bereizi behar dira...) eta, gainera, ehunak hainbat materia motaz osatuak egon daitezke, eta horren haien birziklapena eragozten du.

Espanian 900.000 tona arropa botatzen dira urtean, eta % 88 zabortegetara eramaten da, Moda re-k egin-dako txostenaren arabera. Beste % 12 arropa-educiontzietara joaten da, eta, handik, arropak sailkatzen dituzten lantegietara –baita egoera txarrean daudenak ere–, eta berrerabili edo birziklatu egiten dituzte. Baina ehun-hondakinei buruzko lege berri batek ezartzen duenez, 2025ean udalek bereizita jaso beharko dituzte ehun-hondakinak; beraz, kaleetan arropa-educiontzi gehiago ikusiko ditugu. Moda-markek ere parte hartu beharko dute beren dendetan erabilitako jantziak biltzen, ezin izanen dituzte soberakinak bota –beraz, bigarren eskuko aukerak handitu egingo dira– eta partzuegoak sortu beharko dituzte beren hondakinak kudeatzeko (Ángel Medina, 2023). Birziklatze-ekintza onuragarritzat jotzen ditugun praktikek ere kalte egiten ahal diote ingurumenari ezkutuan. 2019an, Statista-k 28 mila milioi dolarreko balioa eman zion bigarren eskuko arroparen munduko merkatu horri. ThredUp-eren 2021eko ekaineko txostenaren arabera, moda horrek bikoiztu egiten du moda azkarraren tamaina 2030ean, eta 77 mila milioi dolarreko balioa izanen du 2025ean (Ángel Medina, 2023). (Moda Basura- Carro de Combate txostena, 68. or., 2023).

Dohaintzan emandako arropa sailkatu ondoren, GKE batzuek “bala” deritzenak saltzen dizkiete Afrikako herrialdeei tonaka (Ghanara, esaterako). Arropa bertan saltzen da eta merkatuak gainezka egiten du, komunitate horietako merkatuak prekarizatuta, eta horrek zaildu egiten du lehiatzea euro batean saltzen den Carolina Herreraren kamiseta batekin. Saldu gabeko eta kalitate txarreko jantziak zabortegei irekietara eta ozeanoetara botatzen dira (Clément, 2021). Munduan dohaintzan emandako arroparen % 70 baino gehiago Afrikara doa, inpaktu larriak eraginda. Milioika Atacamako basamortuan daude pilatuta. 9.000 tona arropa iristen dira urtero Txilera itsasoz (Moda Basura- Carro de Combate txostena, 68. orrialdea, 2023).

Europar Batasunak bigarren eskuko 112 milioi janzki baino gehiago bidali zituen Kenyara (guztira, 900 milioi janzki iritsi ziren mundu osoan), eta horietatik 56 milioi baino gehiago zikinak zeuden, «okada orbanekin eta animalia ileekin» eta guzti, edo hondatuak. Azken horietatik, gutxienez 37 milioi (70.000 Espainiatik iritsiak) material sintetikoekin eginak ziren, Clean Up Kenyari (Limpías Kenia) eta Wildlight erakundeek Changing Markets Foundation fundaziorako egindako ikerketaren arabera (Blanco, 2023).

Hala ere, bide publikoetan educiontziak dituzten elkarte guztiek ez dute horrela egiten. Madre Corajeren educiontziei buruz hitz egiten dizugu ezarri diren konponbideei buruzko atalean.

Mikroplastikoak: Zure kamisetak mikrozuntzak sortzen ditu, baita ehun-arropa guztiek ere, baina lehengai sintetikoetik datozen haietan jarri behar dugu arreta; mikroplastikoak ez dira 5 mm baino handiagoak; ba al zenekien zure kamisetako mikroplastikoak itsasora iristen direla? Jantzi bat ekoizteko prozesu osoan, azken kontsumitzaileak erabili eta zaintzen duenean ere, mikrozuntzak askatu eta itsasora iristen dira. Gaur egun, itsasoko mikroplastikoen iturri nagusia ehun sintetikoetatik dator. Urtero, milioi erdi tona plastikozko mikrozuntz isurtzen dira ozeanora, hau da, plastikozko 50.000 milioi botilaren baliokidea. Mikrozuntzak ezin dira uretatik atera eta elika-kate osora zabaldu daitezke.

Gure arropetatik datozen mikropartikulak txikiegiak dira hondakin-urak tratatzeko instalazioek iragazteko, eta ozeanoan amaitzen dute bidaia. Ozeanoetako kutsadura-iturri nagusia da plastikozko poltsen aldean (ADEME, 2022). Garbiketarako gai kimiko eta mikroplastikoak askatzen ditu etxeko hondakin-uretan. Kalkulatzen da plastikozko milioi erdi tona mikrozuntz askatzen direla urtero ozeanoan, plastikozko ehunak garbitzearen ondorioz (European Environment Agency, 2023).

Kalkuluen arabera, munduko uraren kutsaduraren % 20 inguru ehungintzako produktuak tindatzearen eta haien akaberaren ondorio da, eta horrek eragina du langileen eta tokiko komunitateen osasunean.

EBren zenbait jarraibide zuntzen zatiketari buruzkoak dira, eta mikroplastikoak eta diseinu ekologikoaren printzipioak berriro noiz arautuko zain gaude. Hondakinen aurkako Borrokari eta Ekonomia Zirkularrari buruzko Frantziako Legea kontsumitzaileen heziketari heltzen saiatu da, eta zuntz sintetikoa (birziklatuak edo birjinak) % 50en edo hortik gora duten arropa berrietako etiketan mikroplastikoen askatzeaz ohartarazi behar da. gaur egun, Erresuma Batuak mikroplastikoen lege-proiektu bat du bigarren irakurraldian, eta ekintzaileek espero dute gobernuak mikro-zuntz iragazkiak jartzeko betebeharra ezartzea etxeko garbigailu berri guztietan (Web, 2023).

6. Alpaka egiteko prozesua

Alpaka-zuntza eta alpaka egiteko prozesua:

MADRE CORAJE Fundazioak Peruko VECINOS PERÚ toki bazkidearekin lan egiten du, landa garapenerako proiektuak garatuta, alpaka egiteko prozesua ardatz duten beste ekintza batzuen artean. Hango errealitateaz dugun ezagutzari esker, badakigu zein den alpaka-zuntzaren errealitatea.

Alpaka animalia bat da eta izugarri errespetatzen du bere natur ingurunea. Nola ibiltzen den, nola jaten duen, hau da, horri guztiorri erreparatzen bazaio, ikusiko dugu animalia hori egiazki dagoela pentsatua ingurumeneko orekari eusteko, baita gizakiak abusuak egiten dituenean eta artzaintza neurrigabea sortzen denean ere. Askoz ere kalte txikiagoa eragiten du kotoia edo beste zuntz sintetiko batzuk egiteak eragiten dutena baino. Alpaka oso ongi egokitzen da mendiko ekosisteman, larreetan batez ere, hankaren oinarrian oin-zolako kuxinak dituelako; kuxin horiei esker, oso leunki zapaltzen du eta ez dio kalterik eragiten zapaltzen duen lurrari.

Alpaka-artilearen ezaugarriak

Alpaka-zuntza estimatua da benetan ehungintzan eta goi modaren munduan, fina, goxoa, leuna, harroa, erresistentea, malgua eta iragazgaitza baita. Gainera, ez da sukoia eta halako elastikotasun beroa ematen du. Horrez gain, ezaugarri hipoalergenikoak ditu, ez da hain latza izaten, laztasun txikiagoa dauka eta larruazalean narradura txikiagoa eragin ohi du.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako IV. Errolda Nazionalaren arabera (CENAGRO), alpaken populazioa 3.685.516 alekoa da eta 82.459 abeltzain eta nekazari ari dira alpakaren inguruko ekoizpenean. Honatx alpaka ekoizten duten eskualde nagusiak: Puno (% 39,6), Cusco (% 14,7), Arequipa (% 12,7), Huancavelica (% 8,3), Apurímac (% 5,9), Ayacucho (% 2,8) eta Pasco (% 1,8).

Alpakaren produktu izarra ZUNTZA da, lanolina-eduki txikia duelako eta, horretan, argi eta garbi bereizten da ardi-artiletik. Alpaka-zuntza goi mendiko belardi naturaletik heldu da, 3.800 metrotik gora (mundu ekoizpenaren % 95 – 6.500 tona metriko).

Alpakak bazkatzera ateratzen dira goizeko 6:30 edo 7:00etatik aurrera, egun osoa ematen dute belardi naturalean, hau da, han "echadero" esaten dioten lekuan; zehazki, komunitateko jende guztiarendako belardi komunak dira, lurrak komunalak baitira, hau da, herrilurrak, inor ez da ezeren jabea, lekua denen artean erabiltzen baita; hala eta guztiz ere, ekoizleek beren "echaderoak" markatuak dituzte. Arratsaldean zehar, 3:30etik edo 4:00etatik aurrera, alpapak ekoizlearen etxolara itzultzen dira, han alpaken estalpea edo lo-tokia baitaude.

Hezeguneetan elikatzen dira eta haien habitata goi mendiko natur belardietan dago.

Bazka naturalak jaten dituzte eta, horien osagarri, bazka landuak ematen zaizkie (bazka oloa, rye gras ingelesa, hirusta). Bi osasun kanpaina egiten dira barne eta kanpo parasitoen aurka, euri garaia baino lehen (urria eta azaroa) eta eurien ondotik (apirila eta maiatza) egiten da. Bi alpaka arraza daude oso ongi zehaztuak: Huacaya arraza (pelutxe bat bezala) arruntena da, eta Suzi arraza, zuntz leun eta luzea duena; gainera, arrazen arteko gurutzaketaren ondoriozko alpaka hibridoak daude (Huarizo alpaka eta llama). Alpaken % 80 Huacaya arrazakoak dira; % 12, Suri arrazakoak, eta % 8, arraza hibridoak.

Familia bakoitzak, bana beste, 100 alpaka izan ohi ditu; izan ere, batzuek 20 ale dituzte, eta beste batzuek, berriz, 800 alpaka, baina azken hori nekez gertatzen da. Alpakak bazkatzera eramaten dituzten pertsonak emakumeak dira oro har eta ia beti beren esku-gorurarekin (puchka) ari dira alpaka-zuntzaren hari artisaua ehuntzen edo egiten, eta gauza bera gizona artzaintzan ari denean. Alpaka-zuntza nabarmen baloratzen dute, haien "produktu izarra" baita.

Erakunde askok dihardute hari artisaua egiten, eta tindu naturalak erabiltzen dituzte hariak tindatzeko eta, horrela, artisautza-produktuak eskaintzeko, alpakaren linea naturala nabarmentze aldera.

Zuntzaren kalitateari begira, alpakaren hobekuntza genetikoak lantzen da. Horretarako, kalitatezko ugaltzaile ar bat sartzen da artaldean, artaldeko emerik onenekin gurutzatzeko; horren ondorioz, haien kumeak gero eta hobeto dira genetikoki. Kalitateak estra fina, fina, ertaina eta lodia dira. Ekoizleek erabiltzeko moduko hizkera da. Industriari bere izenak ditu; besteak beste, Royal, baby alpaka, inperiala, fleece, lodia (finenetik lodienara). Izan ere, genetikoki lan egiten da, gurutzaketa erregistroak eginda eta jaiotzak kontrolatuta; horretarako, ekoi-zeen aukeraketa funtsezkoa da, eta lantzen den aldaera zuntzaren fintasuna da; hau da, hori hobetu beharra dago.

Aukeraketa estalketa garaia baino lehen egiten da, irailtik azarora, hots, artaldeko arrik onena aukeratzen da eta, halakorik ez badago, arra aldatu edo beste ar ugaltzaile bat bilatu behar da estaldura kanpaina hasi baino lehen. Halaber, emeak aukeratzen dira, A, B, C eta D gisa kategorizatuta. Animaliarik onena A da; txarrena eta akats genetikoa dituenak, berriz, D. Azken hori hiltegiara (camal) eraman ohi da.

Ile-moztea xede horretarako guraize bereziekin egiten da, bai eta makina elektromekanikoekin ere. Gizonek egin ohi dute ile-moztea (beraz, lan maskulinizatua da). Orain, ile-mozte mekanikoa zabaltzen ari da, azkarra-goa baita eta mozketak uniformeak egiten dituelako, ile-mozterako guraizeek ez bezala. Ile-moztea egiten da, alpakaren berezko prozesua delako, eta gainera, alpakaren merkaturatze produktu nagusia bere zuntza delako. Izan ere, alpakaren inguruko komunitatea zuntza salduz bizi da, nazioartean eskaria badagoelako. Urtean behin egiten da ile-moztea. Animalia gazteenen zuntza finena da; horregatik, baby alpaka esaten zaio.

Oso garrantzitsua da jakitea alpaka-larruak hainbat kalitate dituela, finenetik lodienara; horregatik da garrantzitsua behar bezalako ile-moztea egitea, mozketak uniformeak izan behar du, eta alpaka-larruaren antolaera egokia, danbor motakoa, zuntza zatirik finenak lodiekin ez nahasteko. Ondoren, zuntza kategorietan sailkatzen da (alpaka-larrua zatitan bereizten da, kalitateen arabera: estra fina, fina, erdi fina, lodia). Gainera, badago azken iragazki bat, hots, sailkapena, eta kalitateen banaketa askoz ere zorrotzagoa da. Sailkapenean, zuntzik finenak bereiztea lortzen da: royal eta baby alpaka, hain zuzen ere.

Azkenik, alpakaren produktu izarra ZUNTZA da, ez baitu lanolarik (argizaria). Ardi-artileak, ordea, badu, eta horregatik da koipetsu samarra.

Alpaka-zuntza oraindik ere **iturburuetan garbitzen da**. Orain, FMC eta VPP proiektuek lagundurik, alpakaren eta llamaren zuntza garbitzeko garbigailuak jartzen ari dira alpaka prozesatzeko lantegi txikietan, komunitateetan bertan. Eguzki-panelarekin batera, ura bermatzen dute eta, ura 40°C-tik gora beroturik, detergente neutro batek alpaka-zuntza garbitzen du, ezpurutasunak eta zuntzaren argizaria ere ezabatuta, goxo-goxoa utzita.

Zuntza kardatzea. Garbitzen den zuntz hori uniformizatu edo orraztu beharra dago karda-makina deritzon aparatu batean. Danbor birakari bat du eta altzairuzko hortz txikiz dago hornitua. Alpaka-zuntza garbitu eta lehortu ondoren, karda-makinan sartzen da. Makinak danbor birakari bat du eta altzairuzko hortzez (guarnizioa) osatua dago, zuntza era uniformean orrazteko. Biraren bidez, izan ere, dena xerlo bakarrera ekartzen da, luze samarra, eta Tops izenez ezagutzen da.

Behin alpaka-zuntza garbitu, lehortu eta orraztutakoan, irun behar da; hau da, zuntz xerloa elikatu behar da, bihurritzen joateko, esku-gorua biratzen den bitartean; edo irulearen danborra biratzen denean, zuntz xerloa elikatzen doa, harik eta haria osatzen den arte (egitura mehea).

Harilak zilindro-formako bolak, konoak edo bobinak dira, alpaka-zuntzaren haria salmentarako txukuntxukun agertuta; guk lagundutako lantegi txikietan dauden eskuzko haril-gailuekin egiten da. Tituluen arabera sailkatzen da, hariaren lodierari dagokiona, hau da, zenbat eta meheago izan, hainbat eta finagoa da produktua eta hainbat eta garestiagoa ere bai; hori dela eta, hariaren merkatuan 7tik 14ra bitarteko tituluz mintzatzen da. 7a denetan meheena da eta, horrela, hurrenez hurren.

Mataza. Alpaka-zuntzaren haria neurri bereko itzuli zabaletan antolatua egotea da. Hori tindaketarako egiten da edota ehungailuan ehuntzeko. Tindu naturalekin tindatzeko egiten da ur irakineko eltzeetan, eta asko erabiltzen dute ehungailuetan ehunak egiteko.

Alpaka-zuntzari ematen zaion **tindatzea** produktu kimikoen bidezkoa izan daiteke, baina gaur egun, tindatze naturala bultzatzen da, produktu naturalen bidez (landareak, batez ere).

Gaur egungo joera horixe da, hau da, ehunak egiteko prozesuan hari artisaua erabiltzea eta tindu naturalekin tindatzea eta, horrekin batera, gero eta eskari handiagoa dago koloretako alpaka-zuntza erabiltzeko (kolore naturalen 26 tonalitate daude), eta orain kolore naturaleko hariak erabiltzen ari dira.

Ehuna bi teknika erabiliz egiten da: batetik, puntuko ehuna, makilatxoa eta kakorratza erabiliz (chompak, txanoak, eskularruak, mitoiak) eta ehun laua, zurezko ehungailu bat erabiliz (xalak, xalinak, mantak, tapizak, etab.).

Patroiak egitea. Patroiak, moldeak edo ereduak paperean edo oihalean sortu eta gida gisa erabiltzen dira ehun-produktuak mozteko eta egiteko. Horretarako, proiektuak moda diseinatzaileak kontratatzen ditu eta, patroiekin fitxa teknikoen bidez (hor jantziak izan behar dituen neurriak, pisua eta koloreak zehaztuak daude), alpaka-artisauak egiten dute jantzi hori.

Azken produktuko pieza azken produktuaren edo produktu bukatuaren zatia da. Bertan dauden ehun-tailerretan, emakumeek produktu jakin bateko piezak egiten dituzte, hau da, chompak, eskularruak, mitoiak, txanoak, eta gero, azken produkturako batzen dituzte.

Prozesua, hein handienez, emakumeen eskuetan dago artzaintzatik jantzia bera egiteraino.

Prozesuan sortzen den hondakinari dagokionez, ZERO WASTEz mintza gaitzke, dena bitartekariari edota alpaka-zuntza biltzeaz arduratzen den industriari saltzen zaiolako; zenbaitetan, behin garbiak daudenean, hondakin horiek osagarrietarako betegarri gisa erabiltzen dituzte (alpaka-zuntzeko oroigarriak).

Alpaka-zuntz guztiari ematen zaio irteera, % 100ni. Alpaka-zuntzaren kategorizazioa eta sailkapena egiten dira, finenetik lodienara, bragak barne (hanketako eta buruko zuntz motzaren hondarrak). Ehungintzak dena eramaten du berekin, Arequipa (Peru hegoaldea) hirian kokatua dagoen merkatu nazionala da. Industria horrek hainbat produktu esportatzen ditu eraldatuak edo prozesatuak eta, horrekin batera, Top direlakoak (zuntz garbia eta orraztua), hari industrialak, ehun-jantziak eta beste. Badago barne merkatua horretarako; gehien-gehiena esportaziora doa (% 95). Oraindik ere ez ditu isolamendu termikoko esperientziak ikusi, baina azterlan zientifikoaren arabera, alpaka-zuntzak termo-erregulazioko ezaugarria dauka, hau da, gorputzaren tenperaturara egokitzen da; ardi-artileak, ordea, beroa eragiten du. Perun (Arequipa eta Lima), ibilgailuetako jarleku zorrotarako erabiltzen dute, besteak beste.

Gure alpaka-zuntzak eraginik gara ezagunak munduan, baina beti ez da harrotasunerako arrazoi izan Peruko gizartean, oraindik ere aurreiritzi asko daude, baina poliki-poliki, gero eta jende gehiago dago identifikatua Peruko ondarearen zati horrekin. Alpakarekiko identitatea gora ari da beste herrialde batzuetan, guk espeziearen mundu populazioaren % 80 baldin badugu ere. Esate baterako, Zeelanda Berrian. Izan ere, alpaka esportatu den lehenetariko herrialdea da eta, genetikoki, gure aurretik jarri da, hara eraman duten germoplasma goi kalitate genetikoko animaliak izan baitira. Haien harrotasunez erakusten dute alpaka, haien bizitzaren parte da, maskota gisa ere erabiltzen baitute.

Peruko gobernuak, zailtasunak zailtasun, identitate horren sustapena bultzatzen joan da gero eta gehiago, azken 10 urte honetan; ez gehiago. Herritarrek oro har gutxi estimatzen dute alpaka-zuntza. Peruko gizartearen tarte garrantzitsu batek baizik ez du estimatzen. Hain zuzen ere, migrante gehienek agertzen dituzten aurreiritzi horiek daude alpakari egiten zaion kritikaren oinarrian. Izan ere, alpakak dituztenak bazterturik daude gizartean eta "indio" esaten zaie, hau da, kulturaren aldetik aurrera joan ez dena eta gainerakoek baztertzen dutena.

Gobernu Nazionala, gaur egun, programa nazional bat ari da burutzen Peruko sektore kamelikultorea sustatzeko eta herrialdeko 6 eskualdetan ditu proiektuak, teknologia lehen jardueran eta nekazaritzako industrian garatzeko. Era berean, Huancavelica eskualdeko Gobernuak kamelidoen Eskualde Zuzendaritza bat du, bertako alpaka-sektorea sustatzeko politika publikoak proiektuen bidez bultzatze aldera.

7. Europako Estrategia berria Ehun Jasangarrietarako eta Zirkularretarako

Europako estrategia Berria Ehun Jasangarrietarako eta Zirkularretarako:

https://environment.ec.europa.eu/publications/textiles-strategy_es

- A. Europako ehun kontsumoa laugarrena da klima-aldaketan eragin handiena duten kontsumoen artean, Europan, elikaduraren, etxebizitzaren eta garraioaren ondotik.
- B. Hirugarrena da ur kontsumoan eta lurzorua erabileran
- C. Bogsarrean da lehengaien kontsumoan eta berotegi-efektuko gas isurietan.

5 ardatzetan funtsatu da. hauek dira:

<https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/9f3fc2a6-b02f-11ec-83e1-01aa75ed71a1>

- **Ekodiseinua:** Inork jantzi bat ekoiztea pentsatzen duenean, lehenik eta behin haren diseinua egin behar du. Ekodiseinuak jantziaren balio-kate osoa modu jasangarrian planteatzera behartzen du. Diseinu-estrategia jasangarriak ezarri eta estandarizatu nahi dituzte, eta gutxienez ehun batzuk birziklatu behar izatea, adibidez. Diseinu hori ekologikoa bada, ingurumen-inpaktu kaltegarria % 80 murriztu daiteke.
- Honen baitan: BATZORDEAK EUROPAKO PARLAMENTUARI, KONTSEILUARI, EUROPAKO EKONOMIA ETA GIZARTE BATZORDEARI ETA ESKUALDEEN BATZORDEARI **produktu jasangarriak** egiteari buruz EGINDAKO JAKINARAZPENA. Bada, <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX%3A52022DC0140&qid=1649112555090> arauak premiatzen du jasangarritasun handiagoko produktuak sustatzera. Birziklagarritasuna, berrerabilpena eta jantziak konpontzeko erraztasun handiagoa sustatzen dira. Jantzien kalitateak lehentasuna izango du. Urteko bildumak ere mugatu nahi dituzte. Garrantzitsua da ekodiseinuari buruzko jarraibide berberak ematea estatu guztiei, hala nola luze irauten duten ehunak lehenestea eta birziklagarritasuna ez baztertzea. Pertsonen arropak konpontzeko aukera ematea, berrerabilpena sustatzea; aukera horiek guztiak sustatu nahi dituzte, moda azkarrak egun ahaztuak baitaude. Ehun birziklatuen % X erabiltzea bultzatu nahi dute arropa guztietan. Orain, % 1 bakarrik birziklatzen da. Hau da, botatzen denaren % 1 soilik birziklatzen da. Merkataritza-eredu zirkularrak sustatu nahi dira, berrerabilpen eta konponketa sektoreak barne.
- **Hondakinen kontrola eta trazabilitatea:** Beste herrialde batzuei egiten zaizkien dohaintzak kontrolatu nahi dira. Ezagunak dira Hegoaldeko leku batzuetan diren zabortegeak, ehun-arropaz beterik (Atacama basamortuan, adibidez); bada, esportazio horiek kontrolatu eta saihestu nahi dira. 2019an, EB

munduko arropa esportatzaile handienetako bat izan zen, 80.000 milioi euroko balio konbinatuarekin. Ingurumen-inpaktu hori kontrolatzeko modu bat da jantzien pasaporte digitala da. Horixe proposatu da. Pasaporte horrek prozesu osoaren trazabilitatea aztertuko du. Oso ongi justifikatu behar da arropa beste herrialde batera ematea edo esportatzea. Europatik edo AEBetik etorritako jantziekin zabortegeiak Afrikan edo Latinoamerikan sortzeaz gain, beste ondorio bat da bertako enpresa-giharra gelditu egiten dela eta lehiakortasuna galtzen dutela, kanpotik datozen jantzi merkeen aurrean. Pasaporteak gaur egun ezagutzen dugun etiketak baino askoz informazio handiagoa emanen luke; izan ere, esan beharko luke non egin den zure jantzia daraman ehun bakoitza, non landu den, non irun den.... Askotan, gainera, hainbat material daramatza, eta horrek a posteriori birziklatzeko prozesua zailtzen du. Pasaporteak ez du ordezkatzeko gaur egun ezagutzen dugun etiketa (1987ko araudia). Helburua da saldu edo itzuli gabeko ehunen suntsipena eteten saiatzea, kontzientzia handiagoa sortuz.

o Danimarkan eraikuntza-sektorean ezartzen hasi dira.

o Langileen baldintzei dagokienez, ez dago irmotasun handirik; neurri horrek langileen babes sustatuko luke, baina, zalantzarik gabe, beste neurri batzuekin osatu beharko da, prozesuan kontrol handiagoa lortzeko.

- **Mikroplastikoak nahigabe askatzearen gaineko kontrol neurriak** poliesterreko edo zuntz akrilikozko jantzi bat sortzeko prozesu osoan, gai horiek itsasora iristen baitira, baita airera ere. Garbigailu guztietan iragazkiak jarri beharra proposatzen da, mikroplastikoak itsasora ez iristeko; neurri interesgarria da, baina, zalantzarik gabe, ez dio arazoaren muinari heltzen; neurriak, gainera, jantziaren kontsumitzailearengan jartzen du arreta, eta ez ingurumen-inpaktu kaltegarria eragiten duen ehunaren diseinuan eta ekoizpenean.
- **Kontrol zorrotzen bidez, Greenwashing-a desegitea.** Zure marka jasangarria dela esateko, hirugarren batek bermatu beharko du, eta hori oinarritzkoa da, baina gaur egun ez da halakorik gertatzen. Hainbat ziurtagiri daude gizarte- eta ingurumen-kontrolak bermatzeko. Kontuz ibili behar da gaur egun ugartzen ari diren zigiluekin; oraingoz, aukerra bakarra dago, hots, kontsumitzeko orduan gu ere ikertzaileak izatea eta erosiko dugun jantzia ongi aztertzea, markaren garbitze berde batekin ziria sar ez diezaguten. Publizitate-kanpaina handiek diru asko inbertitzen dute marketinean, eta pisu handia dute ehungintzaren merkatuan

Europar Batasunak ehungintza jasangarri, birziklagarri, iraunkor eta kalitatezkoaren alde dihardu, eta, horregatik, hainbat lege-dokumentu lantzen ari da pertsonak eta planeta errespetatuko dituen bide-lerro bat taxutzeko, ekonomia bidezkoa eta berdintasunezkoa sortuta. Besteak beste, Europako Itun Berdearekin egiten du bat, neutritasun klimatikoa lortzeko, 2030erako karbono-aztarna % 55 murriztuta eta 2050erako zero isuri garbiak lortuta. Baita 2020ko Europarako industria-eredua ere, Batzordeak sustatua, hots, Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Plana.

Ehungintzan legegintza-mugimenduak gertatzen ari dira, eta horrek ondorio eta aldaketa nabarmenak izanen ditu. Garrantzitsua da azpimarratzea Europako herrialde guztien legeria berdina lortu nahi dela, enpresa guztiak norabide berean joateko. Gaur egun, lege berrien zain gaude, benetako aldaketak ezartzeko eta asmo teoriko on hutsetan ez jarraitzeko. Europak gomendatu egiten du, baina oraingoz ez da behartzen, eta, beraz, borondate oneko etapan jarraitzen dugu. 2025ean espero da Europako araudi berria, enpresek beren ehunen ardura har

dezaten proiektuaren zikloaren prozesu osoan. Herrialde eta eskualde bakoitzak bere errealitatea hartu beharko du kontuan, tokiko araudiekin bat legeak egiteko eta fiskalizatu ahal izateko.

Gaur egungo eta indarrean dagoen legediaren adibide gisa: Diseinu Ekologikoaren Erregelamendua eta Ehungintzako Produktu Jasangarri eta Zirkularretarako EBren Estrategia, Brusela, 2022.03.30 COM (2022) 142 azkena 2022/0095 (COD) EUROPAKO LEGEBILTZARRAREN ETA KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA, zeinaren bidez produktu jasangarriari aplikatu beharreko diseinu ekologikoko eskakizunak ezartzeko esparru bat ezartzen baita eta 2009/125/EE Zuzentaraua indargabetzen baita.

Erreklamo Berdeen Zuzentzarauak ziurtatuko du markak ez daitezela jasangarriak autoizendatu aitorturiko ziurtagiririk eta bizi-zikloaren azterketarik gabe. Horrela, 2023aren hasieran, ingurumen-publizitateko erreklamoei buruzko Zuzentzarau Proposamena egin zen («Green Claims», <https://n9.cl/propuestadedirectiva>). Araudi hori ez dago diseinatua finantza-enpresentzat (berariazko erregulazioa izanen baitute), gainerakoentzat baizik, eta beharrezkoa izanen da edozein publizitate-erreklamo zehatza eta neurgarria izatea, bai eta modu independentean egiaztatua izatea ere. Gainera, merkatuan dauden etiketa eta bereizgarri "berde" guztiak berrantolatu nahi ditu (Eco Industria Taldea).

Produktu kimikoei eta mikroplastikoei buruzko legeak ezartzeko erronka. REACH araudia berrikusten ari gara, arreta handiagoa jartzeko substantzia kaltegarrien inpaktuetan eta mikroplastikoen askapenean.

Eremu sozialean, EBri eskatzen zaio Behar bezalako Arretari buruzko Zuzentzarau bat ezar dezala, giza eskubiak ez urratzeko. Halaber, haurren esplotaziotik datozen produktuen merkaturatzea debekatzeko eskatzen da.

Jantzi baten bizitzaren amaiera malda handia da, eta kudeatzeko zaila, gaur egun.

GreenPeace Mexicok bere (<https://www.greenpeace.org/mexico/blog/9514/fast-fashion/>) produktu batean dioenez, modaren sektoreak bere ekoizpen-eredua aldatuko balu ingurumenaren eta langileen mesedetan, hau da, fast fashion atzean utziko balu, 192 mila milioi dolarreko etekin ekonomiko globala izanen litzateke.

8. Eta egoera hori ikusirik, ZER EGIN DEZAKEGU?

Errealitate horrekin KONEKTATUKO GARA

Dagoeneko egin duzu lehendabiziko gauza eta funtsezkoa: informatu zara. Ziur aski, orain galdera asko dituzu buruan eta, ziurrenera, haietako bat hauxe izanen da: bidezkoa al da kontsumo harrapariak beste pertsona batzuen eskubideak urratzea eta planetan suntsitzea lege bigunagoak dituzten lekuetan? Madre Coraje erakundeak argi daukagu eta garapena sortuko duen bestelako modaren eta bestelako kontsumoaren alde egiten dugu, Peruko eta Mozambikeko komunitate pobretuetan gauzatzen ditugun proiektuek sortzen duten bezala. **Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen** bitartez, **4.7 helmugaren** erronka dugu, hots, herritarrak sentsibilizatzea ehungintzaren inpaktu kaltegarrien gainean eta aldaketarako eragileak sortzea, nor bere kontsumoaren bidez, eralda ditzan fast fashion moldetik gizartera, ingurumenera eta ekonomiara datozen egoera bidegabeak. Alternatiba, kontsumoa murriztea da, eta slow fashion-en alde egiten dugu, pertsonak eta planetan erdigunean jarrita, arropa diseinatzen denetik bizitza amaitzen zaion arte. Balio-katearen prozesu guztian ongizatea sortuko duen ekonomia zirkularra indartzen dugu. Madre Corajek alternatiba ekarri nahi du kontsumismo horren aurrean eta gure denda solidarioen bidez bigarren eskuko moda iraunkorra eskaintzen dugu.

Zenbait ahotsek diotenez, fast fashion ereduak gutxi iraunen du, baina oraindik ere presio sozial handia eta indarra du ehunen kontsumoan. Bestalde, gero eta aukera jasangarri gehiago sortzen dira gizarrean, eta pertsona askok egin nahi dugu bestelako kontsumoa. **Aldaketarekin bat egingen duzu?**

Egoera hori ezagutu duzun honetan eta moda azkarraren atzean zer dagoen jakin duzun honetan, zer darabilzu gogoan? Barrena ukitu badizu eta zure buruari galdetzen badiozu **zer egin dezakedan nik egoera aldatzeko**, jakizu asko egin dezakezula. Zure kontsumoak mundua alda dezake, bai, halaxe da, sinplea bezain konplexua. Izokina izan beharko duzu hainbeste publizitate kontsumista eta txundigarriren aurrean, kontsumitu aurretik pentsatzeko eta kontsumo mugimendu lasaiago batekin bat egiteko, **kontsumoa murriztea** lehentasun hartuta; baina zoragarriena da bestelako kontsumoa aukeratu dezakezula eta horretarako aukera asko daudela.

Serge Latouche kontzeptuaren teoriko nagusiaren arabera, **deshazkundeak** mugen zentzua berreskuratzea dakar, gizateriaren eta planetaren biziraupena babesteko. Arlo guztiei eragiten dienez (politika, ekonomia, gizartea), deshazkundeak kontsumoa murriztea dakar. Termino horrek bi alderdi biltzen ditu: teknikaren eta garapenaren kritika, eta krisi ekologikoaren gaineko kontzientzia hartzea (Latouche, 2022). Ehungintzari dagokionez, helburua, orduan, gutxiago eta kalitate hobeagokoa ekoiztea izanen litzateke, baina baita arroparen kontsumoa murriztea ere.

Lehenik eta behin, geure buruari galdetu behar diogu: jantzi berri bat behar al dut? Interesgarria izanen litzateke lehenik zeure buruari galdetzea ea armairuan duzun jantziren bat berrerabili, konpondu edo birziklatu dezakezun; jantzi hori benetan behar baduzu, bigarren hausnarketa eta ikerketa bat etorriko da, marka arduratsuak, etikoak eta jasangarriak aurkitzeko, bai eta beren espazioen bidez kontsumo arduratsua sustatzen duten elkarteak aurkitzeko ere. Madre Corajen murrizketaren aldeko apustua egiten dugu, hori bidezko molde jasangarri bat garatzeko eragile nagusia izan dadin. Moda kontsumitzeko eta karbono-aztarna murrizteko modurik jasangarriena da produktu gutxiago erostea, eta jantzi horiek ahalik eta denbora gehien erabiltzea ? (Informe Moda Basura- Carro de Combate, 72 or., 2023).

Era jasangarrian kontsumitzea: Historia zertzelada batzuk

- Lehenengo kontzeptualizazioa 1970eko hamarkadan hasi zen, eta ingurumen-kutsadura izan zuen ardatz, hala nola uraren eta airearen kutsadura.
- Bigarren fasea 1980ko hamarkadan garatu zen, eta ingurumen-kontzientziarekiko marketinean eta komunikazioan oinarritu zen. Enpresek enpresa-ikuspegi estrategiko jasangarria hobetsi zuten, lehiarako abantaila gisa.
- Azken aldia marketin jasangarriaren egungo aroa da, ekonomia arduratsua eta garapen soziala xede hartuta (Slow Fashion Next, 2022).

Gaur egun hainbat aukera daude, hala nola moda jasangarriko dendak, bigarren eskuko dendak, trukerako gu-
neak, jantziak alokatzeko ekimenak, online salmentak: Vinted eta Wallapop.

Ondoren, alternatiba horiek sakonago azalduko ditugu:

SLOW FASHION: Moda bere diseinutik beretik birpentsatzea. Gizarte gisa, gutxiago eta zentzuz erostea, eta erosketak bakoitzaz gozatzea.

Mendietara joaten gara bake, lasaitasun eta baretasun bila, baina merkataritza-saltokietan erosten dugu, musika goraino dutela, ezagutzen ez ditugun baina gure kamiseta eta galtza berdinak daramatzaten ehunka pertsonaz inguratuta. Modak "kanpai-itxurakoak" jantzia agintzen badu, denboraldi horretan horiek jantziko ditut; "pitilloak" tokatzen bada, estu jantziko naiz... eta, horrelaxe, bulegoetatik markatzen dituzten joera guztiekin.

Nik ez dut aukeratzeko zer jantzi, artaldean jarraitzen diogu modari; nahiz eta sinetsirik nagoen nik aukeratzeko dudala nire janzkera, benetan ez da horrela. Ez al litzateke interesgarriagoa izokinak izatea eta modak gu ahaldunduz eta askatasuna ematea jantzeko orduan eta modaren bidez geure buruarekin konektatzeko orduan?

Moda geldoak kontsumoa murriztea du xede, eta modu kritiko, kontziente eta beharrezkoan kontsumitzea. «Slow» mugimendua elikaduraren munduan hasi zen, 1986an «Slow Food» sortu baitzen; **behar adinako denboraz, maitasunez eta kalitatezko lehengaiekin egindako janaria** bultzatu nahi du, **tradizioari berriro helduz,** gero eta zabalduegoa dagoen «Fast Food» moldeari kontrajarrita.

Mugimendu horretan oinarrituta, Kate Fletcher diseinatzaile, irakasle eta ekintzaileak **«Slow Fashion»** terminoa sortu zuen 2001ean. **Mugimendu horrek diseinua eta materialak ditu ardatz, bai eta bizitzeko modu hobea**

ere; dena hautaketan, informazioan, kultur aniztasunean eta identitatean oinarritzen da. Kalitatea ardatz hartzean, eta, ez, ordea, kantitatea, denboraren faktorea kentzen du ekuaziotik; horrenbestez, kateko langileen-tzat ere lan-baldintza hobekak lortzen dira. Covid-19aren krisiaren aurretik, Espainiako familiak 1.100 euro inguru gastatzen zuten bana beste urtero arropetan eta beste 375 € oinetakoetan. Zenbateko garrantzitsua da eta, oro har, irabazi handiak ematen dizkie sektoreko enpresei. Oso ezaguna da arroparen negozioa diseinuan eta banaketan datzala, baina ba al dakigu nola dauden egunero jantzen dugun arropa egiten duten pertsonak? Eta planetan duen eragina? (Slow Fashion Next, 2022).

MODA JASANGARRIA: Pertsonak eta ingurumena errespetatzen dituen moda da jantziaren diseinutik hasi eta haren bizitzaren amaieraraino. MODA ZIRKULARRA: Moda hau diseinatzeako ikuspegiarekin bat, arropa diseinatzen da bere bizi-zikloaren amaieran ehungintzako ekoizpen-katean jarraitu ahal izateko. Moda horrek ingurumena eta pertsonak errespetatzen dituzten metodoak erabiltzen ditu balio-kate osoan, eta gainera, beren bizi-zikloan ahalik eta ingurumen-inpakturik txikiena eragiteko jantziak dira. Garrantzitsua da gogortzea jasangarritasunak hiru zutabe nagusi dituela: Soziala, Etikoa eta Ingurumenekoa. Material jasangarriekin egindako jantzi baten prezioa garestiagoa izanen da, baina kostu negatibo txikiagoa izanen du planetarentzat eta pertsonentzat. Gainera, zure kontsumoa murriztea oinarri harturik, azkenean armairuaren gastua txikiagoa izanen da jantzi gutxiago badituzu, nahiz eta prezioa handiagoa izan. Prozesu horiek pertsonak duintzen dituzten ekonomiak sortzen dituzte (Slow Fashion Next, 2022).

Ekimen jasangarriak ezartzea konplexua eta garestia da; horregatik, aurrekontua jarri behar da benetako al-daketa baterako eta proiektu baten bizi-zikloaren prozesu osorako. Eta, halaber, legeak behar dira eta ondorioak betetzen ez duenarentzako; bestela, porrot egiten duten ekimen jasangarri asko ikusten jarraituko dugu, ezin baitira mantendu moda azkarrarekin lehian.

MODA ZIRKULARRA: Bere bizitza-zikloaren amaieran ehungintzako ekoizpen-katean berriro sartu ahal izateko diseinatutako arropari egiten dio erreferentzia, lehengai berririk atera behar izan gabe, horrela izenak aipatzen duen zirkulua osatuta, William McDonough and Michael Braungarten «de la cuna a la cuna» liburuari erreferentzia eginez. Sistema hori gure egungo kontsumo lineala amaitzen saiatzen da, hau da, erabili eta botatzeko sistema (Slow Fashion Next, 2022). Marken estrategia zirkular berriek ez dituzte konpontzen gainekoizpenaren eta hondakinen sorreraren ondoriozko arazoak. Modu errealean zirkularra izateak berekin dakar ekoizpena murriztea eta ekoizpenaren gizarte- eta ingurumen-inpaktuak minimizatzea. Azkenaldian ere, marka askok zero wasterekin egin dute bat (zero hondakina) gehitu dira, zirkulartasun estrategia gisa eta isuriak murrizteko estrategia gisa. Oraingoan, marketin arloko beste narratiba bat da, askotan adierazpen engainagarri lausoak erabiltzen dituen, hala nola “zabortegitik desbideratzea”. Gainera, ez dituzte atalka azaltzen hornidura-katean zehar (1., 2., 3., 4. eta 5. mailak) sortzen dituzten hondakinak, emaitzen ebaluazio fidagarriak eginez eta benetako inpaktu onuragarriak azalduz. Sektoreak isuriaren murrizketari heltzeko darabiltzan ekimenei ez dituzte barnebiltzen Hegoaldeko langile eta komunitateak (Moda Basura- Carro de Combate txostena, 72.-74.-79.-85. or., 2023).

Eta galdera hau da: Moda jasangarria erostea erabakitzen badut, nola fida naiteke benetan baldintzak betetzen dituela bai arlo sozialean, bai ingurumenekoan? **Badira hainbat ziurtagiri hainbat aspektu eta oso era berriazkoan kalifikatzeko.**

Ondoren, batzuk aipatuko ditugu, baina askoz gehiago daude; informazio hori Slow Fashion Next ikastarotik atera dugu: Moda Jasangarrirako Sarrera Ikastaroa: Despierta, Re-Evoluciona, Inspira (2022).

→ **Fair Wear ziurtagiria.** Langileen egoerari buruzko benetako informazioa lortzeko, hiru maila hauek begiratzen dira:

1. Marka gisa hartutako erabakiak, zer negozio-praktika sustatzen dituzten, lan egiteko modua eta enpresako kargu gorenek hartzen dituzten erabakiak.
2. Tailerretan, langileen baldintzak hurbiletik ikuskatzeko.
3. Langileekin zuzenean hitz egitea eta haien iritzia entzutea.

«**Fairtrade Textile Standard**» ziurtagiria «Fairtrade Textile Programme» programaren parte da eta ehungintza aldaketa erraztea du helburu. Besoz beso lan egiten da katean ari diren langileekin eta enpresaburuekin, soldata eta baldintza hobekitzeko. Aldi berean, helburua da markek konpromisoa har dezatela bidezko merkataritza-forma bidezkoak betetzeko.

→ **Global Organic Textile Standard Ziurtagiria,** zuntz organikoetan da liderra mundu osoan. Bermatzen du ez direla erabiltzen intsektizidak, pestizidak eta herbizidak, ezta genetikoki aldatutako haziak ere. Estandar horiek «Organic Farming Standards»-ek markatzen ditu.

→ **Cradle to Cradle:** ziurtagiri hau lortzeko, produktuak bost gizarte- eta ingurumen-kategoriatan aztertzen dira:

1. Materialen osasuna.
2. Material berrerabiliak.
3. Energia berriztagarrien erabilera eta karbono-isuriak.
4. Uraren kudeaketa.
5. Ekitate soziala.

→ **Better Cotton Initiative:** ziurtagiri honek ez du esan nahi produktua BCI kotoiarekin egina dagoenik, ezta haren trazabilitatea eskaini daitekeen ere. Esan nahi du produktu hori egiten duela BCIk proposatzen duen kotoi-ekoizpenean inbertitzen eta huraxe babesten duen marka batek egiten duela. Ziurtagiria erabil daiteke BCItik datorren kotoiaren % 10arekin gutxienez, bost urtean BCI kotoiaren % 50ekin ekoiztea lortze aldera.

BIGARREN ESKUKO MODA: Bigarren eskuko erosketa fast fashion fenomenoaren alternatiba bideragarri eta nagusia da gaur egun. Baina, zer da zehazki eta zergatik da alternatiba interesgarria? Bigarren eskuko moda jantzi erabiliari bigarren bizitza ematea da. Bestela esanda, bigarren eskuko arropa da, salgai jarria armairu barnean ez gelditzeko, edo zaborretara ez botatzeko, eta kontsumismoarekiko kontzientzia kritikoa sortzeko. Produktu horiek askotan bigarren eskuko dendetan edo denda espezializatuetan daude, baita aplikazioetan eta zuzenean dohaintza moduan ere. Madre Corajeren kasuan, arropa desinfektatu ondoren, produktuaren prezioa jatorrizko prezioaren, kalitatearen eta itxura orokorraren arabera zehazten da. 2020az geroztik, nabarmen igo da bigarren eskuko erosketa-lekuetara egindako bisiten kopurua, bai denda fisikoetan, bai webgunean. Arropari bigarren bizitza eskainiz, bigarren eskua kontsumo zirkularraren eredutzat har daiteke eta, horrela, ekoizpen eta salmenta modu etikoago baten balorizazioan dago sartua (Alves, 2022). Beraz, orain bigarren eskuko modak eskaintzen dituen **abantailetak**o batzuk azalduko dizkizugu, eta gero, beste aukera batzuk aipatuko ditugu.

Moda azkarraren arazoetako bat, arestian aipatu bezala, moda estandarizatuko produktu berdinen ugaritzea da. Bigarren eskuko vintage modak, aldiz, **pieza paregabeak eskuratzeko** aukera ematen du. Bigarren eskuko kontsumitzaileentzako abantaila da moda betiereko hasiera dela. Horrela, **jantzi erabili bat erostea batzuetan perla bat aurkitzea da** (Alves, 2022). Funtsezkoa da kontsumitzaileen osasunean duen eraginaz hitz egitea. Denboraldiak moda eta eredu eskurazekin eskatzen dituzte, eta pertsona askok dieta egin behar izaten dute modaren guruak agintzen dituzten edertasun-estandarrek betetzeko. Anorexia, bulimia eta beste gaixotasun batzuk agertzen dira beren kontrol mentala ehungintzan fokalizatzen duten pertsonengan. Publizitateak kalte handia egiten du arlo horretan.

Bigarren eskuko moda ere interesgarria da zure armairu stock berrirako. Salgai jarritako produktuak bigarren eskukoak direnez, **haien prezioa automatikoki murrizten da**. Ez da arraroa luxuzko marken produktuak oso merke aurkitzea. Praktika horretan, gure buruari plazera ematen diogu, erreka jo gabe, originaltasunez eta kalitatez (Alves, 2022).

Gainera, **produktu berri gehiagoren eskariak** behera egingen du, baldin eta oraindik ere baliotsuak diren produktu erabilien eskaintza etengabea badago. Bestela esanda, bigarren eskuko merkatuek eragin onuragarria dute ingurumenean, eta kontzientzia kritikoak sortzen dituzte, kontsumoa maila indibidualean eta kolektiboan murrizteko.

Bigarren eskuko salmentaren beste alderdi interesgarri bat da **harreman sozialak eraikitzen** direla. Izan ere, bigarren eskuko salmentak elkarrizketa eragin dezake saltzailearekin produktuaren historiari buruz, eta horrek arlo bati buruzko ikuspegia zabalduko dio erosleari eta huraxe erosteko arrazoi gehiago emango dizkio. Era berean, aldian-aldian, bigarren eskuko gauzak erosten badituzu elkartasunezko denda partikular batean edo bigarren eskuko denda batean, zure etxe inguruan, litekeena da saltzailearen adiskidea egitea. Oso giro interesgarri eta familiarra sortzen da.

Pertsona sortzailea bazara eta eskulanak gustatzen bazaizkizu, bigarren eskuko arropa ere aukera bikaina da arroparekin upcycling egiteko, jantziak konponduz edo birmoldatuz, eta, horrela, zuk zeuk zerbait egin izanaren poza izateko eta, batzuetan, baita janzki paregabe bat sortzeko poza ere. Ziur, gero segurtasun handiagoz eta harroago jantziko duzula.

Bigarren eskuko denda aunitzek irabazi-asmorik gabeko erakundeei ematen diete arropa erabiliaren eta beste produktu batzuen erosketa bidez biltzen den diruaren zati bat (baita dena ere). Horrela, **zure denda lagungarria izan liteke gizartea aldatzeko**, elkartearen asmoekin bat.

Laburbilduz, ondasun erabiliak erosten eta saltzen dituzun bakoitzean, mundu bidezkoago eta jasangarriago baten eraikuntzan inbertitzen duzu. Gure erosketa ohiturak aldatzen baditugu, fabrikatzaileek beren ekoizpen estrategiak ere aldatu beharko dituzte eta moda etikoagoa ekoiztu (Okafor, 2021).

Madre Corajek 3 alternatiba proposatzen dizkizu bigarren eskukoaren bidez aldaketarekin bat egiteko :

1. Arropa emateko edukiontzia:

Madre Corajeren edukiontzietan eta egoitzetan, zure arropa biltzen dugu, erabilia edo erabili gabea. Arropa berria bada eta etiketaduna bada, Peruko eta Mozambiqueko komunitate pobretuetara bidaltzen dugu. Erabilia bada, hainbat xede ematen dizkiogu:

- Arropa erabiliaren parte bat salgai jartzen dugu Espainiako gure Denda Solidarioetan..
- Beste parte bat Espainiako erakundeei ematen diegu, artatzen dituzte giza talde zaugarriari laguntzeko.
- Eta beste parte bat beren prozesuak egiten dituzten kanpo enpresei ematen diegu, eta horrela, funtsak sortzen dira Madre Corajek abian jartzen dituen proiektuei eusteko. Gizarte, hezkuntza, lankidetzeta eta giza laguntza arloko proiektuak izaten dira.

Erabiltzen ditugun ehun gehienak zaborte giren batera iritsi eta han egonen dira hamarkadetan eta, poliesterrari dagokionez, 200 urtez ere iraunen dute. Hori dela eta, zure jantziak ahalik eta gehien berrerabiltzera edo birziklatzera animatzen zaitugu ahalik eta hondakinik txikiena sortzeko.

Bideoaren esteka: Nire kamisetaren historia: <https://www.youtube.com/watch?v=Zd06alnutkA>. Bideoan, Madre Corajek 2 minututan azaltzen du zer irtenbide ematen diegun arropa dohaintzei.

2. Denda solidarioak

Madre Corajeren dendak kontsumo arduratsuko guneak dira, eta pertsona asko esklabo egiten dituen ehungintzako ekoizpenaren kausak eta ondorioak ezagutzeko guneak ere bai. Azpimarratzekoa da ehungintzaren sektoreko langileen % 80 emakumeak direla eta haur esplotazioa gertatzen dela, lan-baldintzak gupidagabeak direla eta pertsona asko pobretzen dituztela, haien eskubideak urratuta. Denda solidarioetan erosiz, ekiten ari gara errealitatea eraldatzeko eta jendearen sormena eta ahalduntzea bultzatzeko. Dendetan boluntarioak ari dira, gehienak emakumeak.

20.000 pertsonak modu solidarioan kontsumitzen dute urtean gure denda solidarioetan. Aldaketa horren parte izan nahi duzu? Gure webgunean aurkituko duzu zure bizilekutik hurbilen dagoen denda: <https://www.madre-coraje.org/que-hacemos/accion-social-espana/ropa-solidaria/>

Madre Corajek, gainera, lankidetzan ari da Cadizko Arte Eskolarekin, sormena eta birziklapena uztartuta. Izan ere, ikasleek jantziak aukeratzen dituzte denda solidarioetan (edo batzuetan pieza bereziagoak, hala nola gortinak), gero arropa paregabea sortzeko, piezak elkarrekin mihizatuz, josiz eta erabiltzeko beste modu bat aurkituta. Ondoren, desfile bat antolatzen da pieza berri horiek baloratzeko. Azkenik, salgai jartzen dira denda solidarioetan, jendeak oro har balia ditzan.


3. Online salmenta:

Ikusi dugun bezala, arlo digitalak inpaktu handia du modaren munduan. Behar bezala erabiliz, tresna interesgarria izan daiteke bigarren eskuko ekintzak sustatzeko. Horregatik, Madre Corajek aukera digitalak eskaintzen dizkizu:

- Vinted eta Wallapop: bi plataforma/aplikazioetan aurkituko gaituzu. Hainbat kontu ditugu gure egoitzekin lotuak, Espainia osoan.
- Halaber, geure salmenta guneak ditugu online saltzeko. Horietako bat askotariko produktuak saltzeko eta beste bat liburuei eskainia (<https://libros.madrecoraje.org/>).
- Instagram: sare sozial hori erabiltzen dugu gure denda solidarioei zabalkundea emateko.

4. Irudia

Zure kamisetaren bidaia - zirkularra



Egilea: Fanny Henrard.

ZU ALDAKETA IZAN ZAITEZKE

Zenbatu al dituzu armairuan dituzun jantziak? Zu aldaketa izan zaitezke, kontsumitu arduraz. Ez duzu imajinatzen zer-nolako boterea duzun pertsona kontsumitzailea zaren aldetik! Sinetsi eta ekiozu.

Murriztu, Berrerabili eta Birziklatu!

Berriz azpimarratuko dugu **funtsezkoa eta egiazkoa dela zuk aldaketa-eragile gisa eta presio politikorako duzun boterea**. Lehenik eta behin, hainbat gauza galdetu behar dizkiozu zeure buruari, Fashion revolution-ek proposatu bezala: Nork egin du nire arropa eta non egin da nire arropa? Galdera horiek eraginda, gero eta galdera gehiago eginen dizkiozu zeure buruari harik eta jatorrira iristen zaren arte, baina ziur aski galdera asko erantzunik gabe geldituko dira, industria horretan handia baita ilunkeria eta erantzunik gutxi baitira. Hori termometro

bikaina da eta arrastoak emanen dizkizu industria horren gardentasun eta trazabilitate txikiaz. Galderak egiten ahal dizkiogu geure buruari, hots, zer dakarkio planetari edo zer dakarkie pertsonei jantziak egiteak, diseinatzen direnetik bizitzaren amaiera arte? Jantzi jasangarriek prezio altuagoa badute ere, ez dugu atzera egin behar; izan ere, 10 jertse izan beharrean, interesgarria izan daiteke agian 3 izatea armairuan, baina jakingo dugu gure armairuan ez dagoela kutsadurarik, ezta giza kosturik ere. Eta zalantzarik baduzu, galdetu aitona-amonei; ziur, arrasto bikainak ematen dizkizutela jantziak berrerabiltzeko moduz.

Eta gure jantzia hondatzen bazaigu, huraxe konpontzea proposa dezakegu, jakinik ere konponketaren bideari gaizki irizten zaiola gaur egun, baina haren balioa nabarmentzen has gaitzke. Ikusi duzu ba ote dagoen joskintza edo kustomizatzeko ikastarorik zure hirian? Ziur gaude zure udalak horrelako ikastaroak antolatzen dituela, dohainik gainera. Zoragarria da gure kontsumo-ekintzaren bidez industria hori aldatzeko gauza izatea, eta motibagarria eta ilusionagarria ere bada.

Argi dago moda azkarrak sekulako boterea duela, eta izokinak izanen gara, baina inpaktu horretaz kontzienteak garen izokinak, eta gauzak eraldatzeko gogoz. Eta ez zaitez larritu, ez baituzu 0tik 100era aldatu behar denbora laburrean, bestela etsipenak joko zaitu. Azaldu dizkizugun alternatibak pixkanaka ezagutzen joan zaitezke, formatu mistoan, hau da, adibidez, ezkontza bat baduzu, gustuko duzun jantzi bat alokatu dezakezu edota bigarren eskuko jantzi arras berezi bat eskuratu edo iraupen luze-luzeko jantzi jasangarri bat, etorkizunean oinarrizkoa izanen dena zure eguneroko bizitzarako. Ez ahaztu gero eta ekimen gehiago daudela arropa trukatzeko edota beti izaten dugu lagun jator bat eroso egoteko moduko jantzi bat utziko diguna.

Eta ikusiko duzu poliki-poliki zure armairua eraldatzen dela eta zu ahalduntzen zarela.

Ikerlanek erakutsi dute kontsumitzaileen % 80k esaten dutela produktu ekologikoak erosi nahi dituztela, baina % 10ek baizik ez du horrelakorik egiazki erosten (Slow Fashion Next, 2022).

Ekimen Arduratsuen Zerrenda

Era jasangarriagoan kontsumitzeko modu batzuk ezagutzen dituzunez, ekimen arduratsuen zerrenda bat proposatzen dizugu, ideiatik ekintzara pasatzeko. Bertan, arropa alokatzeko nahiz arropa etiko eta jasangarria sortzeko enpresak aurkituko dituzu, bai eta bigarren eskuko birsalmenta enpresak ere.

- En Recover enpresan, sartzen dena zuntz berri batekin tratatzen eta ekoizten da; ia ez dute urik eta produktu kimikorik erabiltzen.
- SKFK, Gots-en eta Bidezko Merkataritzan ziurtatutako lehen enpresa izan da espainian. Kalitatezko prezio jasangarriak arrazoizko prezioetan merkaturatzen saiatzen dira.

Era berean, aitzindariak dira eskariaren araberako fabrikazioan eta jantzien alokairuan. Ereduak birpentsatu behar dira, eta alokairua erantzun hori izan daiteke.

- Infit Denim-ek kontsumo osteko 30 tona denim zabortegira ez eramatea lortu du. <https://infitdenim.com/descubre-la-ruta-circular-tejana/>. Ekoizpen etikoa, zirkularra eta toikoa, horra enpresaren balioak. Bakeroak berrerabiltzeko proiektua izan zen hasieran eta, orain, bakero horiekin berekin ehun birziklatua egiten du.
- Moda re- Cáritas: koopera

- ⊗ Elisa Muresan
- ⊗ Bigarren eskuko dendak: Emaúsko Trapuketariak- Madre Coraje- París 365
- ⊗ Trueke Museo Medioambiente Pamplona
- ⊗ Revolving Pamplona
- ⊗ El Bien Social: Moda Jasangarriko 60 marka: <https://elbiensocial.org/wp-content/uploads/2022/06/Marcas-de-Moda-Sostenible-Espana.pdf>

Gizarte Mobilizazioa

Fashion Revolution Week-en parte hartzera animatzen zaituztegu, apirilaren 22tik 29ra. Estatu mailako ekitaldiak prestatzen dira. Argibideak hemen dituzu: <https://linktr.ee/fashionrevolution>: 2013ko apirilaren 24an, [@orsoladecastro](#)-k eta [@carrysomers](#)-ek [@fash_rev](#) sortu zuten, Rana Plazako tragediaren ondorioz. Gaur egun, 100 talde baino gehiago dira 90 herrialdetan, industria gardenagoa, seguruagoa, trazagarriagoa eta bidezkoagoa izateko. Informazioa eman nahi diete herritarrei moda azkarrak ingurumenean eta gizartean eragiten dituen inpaktuez, kontzientziario kanpainen bidez. Instagramen ekimen horien berri duzu eta, toki mailan, bilatu ea zure hirian ba ote dagoen ekimen hori sustatzen duen talderik. Adibidez, Nafarroan ez dago, baina EAEn bai: https://www.instagram.com/fash_reveuskadi/

Eragin Politikoa

Enpresek ziurtagiriak bete beharko lituzkete, beste industria batzuetan bezala; adibidez, elikagaigintzan, haragi bat erosten duzunean, lasai zaude, auditoriak egin zaizkiolako, eta etiketetan esaten dute animaliak zer elikadura izan duen edo zein alorretan hazi den. Lan handia dago egiteko, baina ehungintzan baino informazio gehiago dago.

Bestalde, badira hainbat sinadura bilketa legeriak aldatzeko, adibidez:

<https://www.payyourworkers.org/esp>

<https://www.goodclothesfairpay.eu/>

165 markak "Osasuna eta segurtasuna ehungintzan eta jantzigintzan. Nazioarteko akordioa" sinatu zuten, baina gutxi egiten ari da arazoari aurre egiteko problema (Moda Basura- Carro de Combate txostena, 72.-74.-79.-85., or. 2023).

Sinadurak biltzeko kanpainei buruzko informazio eguneratua izateko, sartu esteka honetan: <https://ropalimpia.org/participa/#acciones>. Arropa Garbiaren aldeko Kanpainaren esteka da.

Konpainia handiei erronka bota zien lehen kanpaina izan zen, ondorio kutsagarrien erantzukizuna beren gain har zezaten. Detox My Fashion-i esker, 80 markak eta hornitzailek **gai kimikoak erabiltzeari uzteko** konpromisoa hartu zuten, hala nola **alkilfenol etoxilatuak (APE)**, Europan eta Estatu Batuetan mugatuak daudenak. Konpromiso hori indarrean da oraindik. Esteka honetan aurkituko duzu kanpaina horri buruzko informazio gehiago: <https://www.greenpeace.org/international/act/detox/>

Eta badakizu nola izanen da zure armairua jasangarriagoa?

**Hartan jantzi gehiago ez sartuz eta etxean dituzun
jantziak ahalik eta gehienetan jantziz. Aterazioz
probetxurik handiena!**

**Egizu garbiketa bat, eman erabiltzen ez dituzun jan-
tziak eta hasi gutxiago kontsumitzen; kontsumitu
behar duzunean, gogoan izan dokumentu honetan
azaldu dizkizugun alternatibak.**

**Eta gozatu zure jantziak eta
zure outfit-ak**

9. Iturri zerrenda



ActionAid (2019ko uztailearen 25a). Sexual harassment and violence against garment workers in Bangladesh.

<https://actionaid.org/sites/default/files/publications/ActionAid%20briefing%20paper%20on%20Bangladesh%20garment%20workers%20FINAL.pdf>



ADEME (2022). La mode sens dessus dessous.

<https://multimedia.ademe.fr/infographies/infographie-mode-qqf/>



Alexa, L., Apetrei, A., Pîslaru, M. (2021). Fast Fashion - an industry at the intersection of green marketing with greenwashing. <https://doi.org/10.2478/9788366675735-042>



Alves, L. (2022ko azaroaren 2a). Le phénomène de la mode de seconde main.

<https://www.comptazine.fr/post/le-phenomene-de-la-mode-de-seconde-main#:~:text=La%20mode%20de%20seconde%20main%20consiste%20%C3%A0%20donner%20une%20deuxi%C3%A8me,ils%20finissent%20%C3%A0%20la%20poubelle>



Alvy (2005eko maiatzaren 23a). Gente trabajando en barcos.

<https://www.microsiervos.com/archivo/mundoreal/trabajando-en-barcos.html>



Ángel Medina, M. (2023ko martxoaren 26a). Cómo será el auge del reciclaje textil en 2025 y a dónde irá la ropa usada.

<https://elpais.com/clima-y-medio-ambiente/2023-03-26/como-sera-el-bum-del-reciclaje-textil-en-2025-y-a-donde-ira-la-ropa-usada.html?ssm=whatsapp>



Atode. (s. f.). Fast fashion, quand la mode atteint ses limites. Atode.

<https://www.atode.fr/fast-fashion-2/>



Avise. (2020ko ekainaren 2a). Impact social, de quoi parle-t-on ? Avise.

<https://www.avise.org/evaluation-impact-social/definition-et-enjeux/impact-social-de-quoi-parle-t-on>



Blanco, P. R. (2023ko otsailaren 16a). La cara B de la adicción a la moda rápida: toneladas de ropa vieja en vertederos africanos.

<https://elpais.com/planeta-futuro/2023-02-16/la-cara-b-de-la-adicion-a-la-moda-rapida-toneladas-de-ropa-vieja-en-vertederos-africanos.html>



Carro de Combate, Informe Moda Basura, el impacto socioambiental de nuestro consumo frenético de ropa.

<https://www.carrodecombate.com/2023/06/05/publicamos-el-informe-final-sobre-greenwashing-de-moda-basura/>



Chapagain, A.K., Hoekstra A.Y., Savenije, H.H.G., Gautam, R. (2005). The water footprint of cotton consumption. Research Report Series No. 18.

<https://www.waterfootprint.org/media/downloads/Report18.pdf>



Clément, H. (2021). Sur le front: Où finissent nos vêtements ? [Documental] Winter Productions/ France Télévisions.

<https://www.france.tv/france-5/sur-le-front/2956729-ou-finissent-nos-vetements.html>



COSH (s. f.-a). ¿Qué impacto tiene el algodón en la humanidad y el medio ambiente?

<https://cosh.eco/es/blog/materials-cotton-1>



COSH (s. f.-b). ¿Qué grado de sostenibilidad y respeto por los animales tiene la lana?

<https://cosh.eco/es/blog/materials-wool-1>



COSH (s. f.-c). ¿Qué grado de sostenibilidad tiene la ropa fabricada con cáñamo?

<https://cosh.eco/es/blog/materiales-beneficios-ambientales-del-c%C3%A1%C3%B1amo>



COSH (s. f.-d). ¿Es el Lyocell una solución realmente sostenible para la moda?

<https://cosh.eco/es/blog/materiales-lyocell-1>



COSH (s. f.-e). ¿Hasta qué punto es sostenible el poliéster?

<https://cosh.eco/es/blog/how-sustainable-is-polyester>



COSH (s. f.-f). Embarking on a body acceptance journey. <https://cosh.eco/en/blog/embar-king-on-a-body-acceptance-journey>



COSH (s. f.-g). Todo lo que necesita saber para elegir materiales de forma consciente y sostenible.

<https://cosh.eco/es/blog/ebook-sobre-materiales-sostenibles-conocimiento-para-marcas-de-moda>



Deflandre, C. eta Salut, P. (2020). Pilier économique. Le magazine pour comprendre les impacts de l'industrie de la Mode.

<https://pandofashion.com/plateforme-informer/dossier-trimestre-2-la-mode-de-2000-a-2020-a-travers-le-prisme-de-la-rse/le-magazine-pour-la-mode-eco-responsable-trimestre-2/pilier-economique-des-changements-economiques-profonds/#:~:text=La%20fast%20fashion%20a%20eu,un%20relais%20de%20croissance%20bienvenu.>



de Freitas Netto, S.V., Sobral, M.F.F., Ribeiro, A.R.B. (2020) Concepts and forms of greenwashing: a systematic review. Environ Sci Eur 32, 19.

<https://doi.org/10.1186/s12302-020-0300-3>



Ellen MacArthur Foundation (2017). A new textiles economy: redesigning fashion's future.
<https://ellenmacarthurfoundation.org/a-new-textiles-economy>



Elram, M. y Steiner, L. (2015). Fashion Conscious Consumers, Fast Fashion and the Impact of Social Media on Purchase Intention. Academic Journal of Interdisciplinary Studies MCSER Publishing, Rome-Italy Vol 4 No 3 S1.
<https://doi.org/10.5901/ajis.2015.v4n3s1p173>



European Commission, Directorate-General for Environment, (2022). Sustainable and circular textiles by 2030, Publications Office of the European Union.
<https://data.europa.eu/doi/10.2779/122408>



European Environment Agency (2023ko otsailaren 15a). Textiles in Europe's circular economy.
<https://www.eea.europa.eu/publications/textiles-in-europes-circular-economy/textiles-in-europe-s-circular-economy>



EUR-Lex (2022ko martxoaren 30a)
<https://eur-lex.europa.eu/>



Fashion Revolution (2019). Fashion Revolution Impact Report 2019.
https://issuu.com/fashionrevolution/docs/fashionrevolution_impactreport_2019_highres



Ferrer Dalmau Textil (2020ko maiatzaren 6a). Procesos y maquinaria en la industria textil.
<https://fdtextil.es/procesos-y-maquinaria-en-la-industria-textil/>



Garmendia Salvador, A., Salvador Alcaide, A., Crespo Sánchez, C. y Garmendia Salvador, L. (2005). Evaluación de impacto ambiental. Pearson.
<https://sociologiaambientalvcm.files.wordpress.com/2014/07/evaluacion-de-impacto-ambiental-garmendia.pdf>



Gautier, M. (2023ko otsailaren 28a). Marché mondial de l'habillement - Faits et chiffres.
<https://fr.statista.com/themes/9354/marche-mondial-de-l-habillement/#topicOverview>



Goikoetxea Ferrández, J. J., Idoate Echarri, S., Salanueva Beldarrain, C. (2017). Economía solidaria. Para construir una ciudadanía global (1ª edición). Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra.
https://dhls.hegoa.ehu.eus/uploads/resources/5530/resource_files/Libro_Economia_Solidaria_bachelor_CAST.pdf



Greenpeace (2008). Destino cero: siete años desintoxicando la industria de la moda.
https://es.greenpeace.org/es/wp-content/uploads/sites/3/2018/07/Toxic_ES_v1.pdf



Greenpeace (2016). Dejando huella : la presencia de sustancias tóxicas en la ropa y equipación de montaña.
http://archivo-es.greenpeace.org/espana/Global/espana/2016/report/Toxicos/dejando_huella.pdf



Grupo Eco Industria (2023): La regulación de los reclamos verdes ("Greenwashing")
<https://www.grupoecoindustria.com/es/la-regulacion-de-los-reclamos-verdes-greenwashing/>



Hmong (s. f.). Ingeniería de procesos húmedos.
https://hmong.es/wiki/Wet_processing_engineering



Estadística Instituto Nacional (2008). Estadísticas e indicadores del agua.
<https://www.ine.es/revistas/cifraine/0108.pdf>



Estadística Instituto Nacional (2022). Estadística sobre el Suministro y Saneamiento del Agua Año 2020.
https://www.ine.es/prensa/essa_2020.pdf



Latouche, S. (2022). Que sais-je ? Paris: Humensis.
https://www.puf.com/content/La_D%C3%A9croissance



Materiales Ecológicos.es (s. f.). Hilo.
<https://materialesecologicos.es/tag/hilo/>



Madre Coraje (2017). El Buen Vivir. [web dokumentala].
<https://buenvivirdoc.madrecoraje.org/>



McCosker, J. (2021ko apirilaren 19a). The Impact of Fast Fashion on Garment Workers. Good On You.
<https://goodonyou.eco/impact-fast-fashion-garment-workers/>



Naciones Unidas (2015). Objetivos y metas de desarrollo sostenible.
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/sustainable-development-goals/>



Office of Child Labor (2022). List of Goods Produced by Child Labor or Forced Labor.
https://www.dol.gov/sites/dolgov/files/ILAB/child_labor_reports/tda2021/2022-TVPR-List-of-Goods-v3.pdf



Okafor, J. (2021). 10 Reasons to Buy Second Hand Rather Than New.
<https://www.trvst.world/sustainable-living/10-reasons-why-you-should-buy-second-hand/>



Ortega, T. (2022ko urtarrilaren 14a). ¿Qué son los impactos sociales, económicos y ambientales? ExpokNews.
<https://www.expoknews.com/que-son-los-impactos-sociales-economicos-y-ambientales/>



Oxfam France (2020ko irailaren 24a). L'impact de la mode: drame social, sanitaire et environnemental.
<https://www.oxfamfrance.org/agir-oxfam/impact-de-la-mode-consequences-sociales-environnementales/>



Oxfam France. (2022ko apirilaren 15a). Fast fashion et slow fashion: définitions et enjeux.
<https://www.oxfamfrance.org/agir-oxfam/fast-fashion-et-slow-fashion-impacts-definitions/>



Oxfam UK (2019ko abuztuaren 28a). New shocking facts about the impact of fast fashion on our climate.
<https://www.oxfam.org.uk/oxfam-in-action/oxfam-blog/new-shocking-facts-about-the-impact-of-fast-fashion-on-our-climate/>



Parlamento Europeo (2022ko apirilaren 21a). El impacto de la producción textil y de los residuos en el medio ambiente (infografía).
<https://www.europarl.europa.eu/news/es/headlines/society/20201208ST093327/el-impacto-de-la-produccion-textil-y-de-los-residuos-en-el-medio-ambiente>



Pérez Porto, J., Gardey, A. (2018ko maiatzaren 30a). Definición de impacto económico - Qué es, Significado y Concepto. Definicion.de.
<https://definicion.de/impacto-economico/#:~:text=La%20idea%20de%20impacto%20econ%C3%B3mico,un%20pa%C3%ADs%20o%20el%20mundo.>



Perry, P. (2022ko abuztuaren 4a). Fast fashion: why your online returns may end up in landfill – and what can be done about it.
<https://theconversation.com/fast-fashion-why-your-online-returns-may-end-up-in-landfill-and-what-can-be-done-about-it-188090>



Pollet, J-F. (2018ko ekainaren 12a). A l'Est aussi, les couturières sont exploitées.
<https://www.cncd.be/europe-est-exploitation-couturieres-textile-habillement-securite-marches-travail-decent>



Quantis (2018). MEASURING FASHION 2018 Environmental Impact of the Global Apparel and Footwear Industries Study.
https://quantis.com/wp-content/uploads/2018/03/measuringfashion_globalimpactstudy_full-report_quantis_cwf_2018a.pdf



Reichart, E., Drew, D. (2019ko urtarrilaren 10a). By the Numbers: The Economic, Social and Environmental Impacts of "Fast Fashion".
<https://www.wri.org/insights/numbers-economic-social-and-environmental-impacts-fast-fashion>



Segran, E. (2023ko otsailaren 7a). Fashion week birthed fast fashion. Can it kill fast fashion, too? Fast Company.
<https://www.fastcompany.com/90843984/fashion-week-birthed-fast-fashion-can-it-kill-fast-fashion-too>



SETEM (s. f.). Campaña Ropa Limpia.
<https://ropalimpia.org/>



Sewport Support Team (2023ko martxoaren 7a). What is Polyester Fabric: Properties, How its Made and Where.
<https://sewport.com/fabrics-directory/polyester-fabric>



Slow Fashion Next (2022ko urtarrila). Introducción a la Moda Sostenible: Despierta, Re-Evoluciona, Inspira. [Ikastaroa].
<https://slowfashionnext.com/cursos-moda-online-sostenible/curso-online-moda-sostenible-y-agenda-2030/>



Slow Fashion Next (2023ko martxoa). Moda Sostenible y Agenda 2030. [Curso].



Skeldon, P. (2019ko urriaren 16a). Social influencers have led to the rise in fast fashion, with 30% of shoppers using Instagram for inspiration.
<https://internetretailing.net/mobile/social-influencers-have-led-to-the-rise-in-fast-fashion-with-30-of-shoppers-using-instagram-for-inspiration-20388/>



Techs (s. f.). BCI (Better Cotton Initiative): tejidos responsables de algodón.
<https://www.techs.es/es/algodon-bci/>



Textile exchange (2021). Preferred Fiber & Materials.
https://textileexchange.org/app/uploads/2021/08/Textile-Exchange_Preferred-Fiber-and-Materials-Market-Report_2021.pdf



University of Aberdeen y Traidcraft Exchange UK. (2022ko urtarrilaren 26a). Female Bangladeshi garment workers bear the cost of Covid disruptions, new research finds. University of Aberdeen.
<https://www.abdn.ac.uk/news/15716/>

UN Environment Programme (2020). Sustainability and Circularity in the Textile Value Chain. [Archivo PDF].




UN News (2022ko azaroaren 8a). COP27: 'Zero tolerance for greenwashing', Guterres says as new report cracks down on empty net-zero pledges.
<https://news.un.org/en/story/2022/11/1130317>



Wathern, P. (1990). Environmental Impact Assessment. Peter Wathernek argitaratua.
<https://doi.org/10.4324/9780203409978>



Webb, B. (2023ko otsailaren 3a). Why is fashion still ignoring microfibres?
<https://www.voguebusiness.com/sustainability/why-is-fashion-still-ignoring-microfibres>



MADRE CORAJE

De tu compromiso nace la esperanza

Zangoza k. 38. Milagrosa. Iruñea
31005 Nafarroa | T. 948 233 289 | navarra@madrecoraje.org

www.madrecoraje.org

 [madrecorajepamplona_](https://www.instagram.com/madrecorajepamplona_)